# EUSKAL HERRIKO GIZARTE PROZESU ETA EGITURAK

**Sara Bidarte Begiristain**

**Soziologia 2. maila**

**2018-2019 ikasturtea**

# 1. gaia:

# GIZARTE EGITURAK ETA PROZESUAK,

# GERTURAPEN TEORIKOA

Gizarte egitura soziologian oinarrizko kontzeptua da, eta COMTEk berak aipatzen ditu gizarte estatika eta gizarte dinamika. Hots, gizarte egitura eta gizarte prozesua; soziologian eztabaida hau da nagusi. Beraz, teoria batzuk gizakiaren hartu-emanak planteatzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, norbanakoa dela egitura horien oinarri.

SPENCERrek (1820 – 1903) gizartearen barruan lau egitura bereizten ditu eta honekin ikus dezakegu betidanik planteatu dela gizarte egituraren kontzeptua soziologiaren barruan.

Honakoak dira Spencerrek bereiziko lituzkeen lau egiturak

- egitura ekonomikoa
- lanari loturiko egitura
- testu ingurunera egokitutako egitura
- sistema politikoa

Gizarte egitura eta sistema bereizterako garaian honakoa ikus dezakegu: sistemak arreta jarriko … eta egiturak egonkortasunari begiratuko dio.

Gizarte egituraren beste arazo bat da gizartearen definiziotzat hartzen dela. Hots, *'estructura social'* deritzona gizartearen definiziotzat hartzen dugula.

**Gizarte egituraren DEFINIZIO eta EZAUGARRIAK:**

Aipatu bezala, ez da erraza *gizarte egitura* kontzeptuari buruzko definizio bakarra ematea, kontzeptu polisemikoa da eta, hortaz, baita sarri eztabaidagarria ere. Maiz orokorregia den erabilera egiten da, eta maiz parekatzen da *gizartea bere osotasunean* (la sociedad en su conjunto) kontzeptuarekin.

Horrekin, soziologo ezberdinek gizarte egituraren inguruan ezaugarri eta definizio ezberdinak aipatu izna dituzte.

*CALLINICOS*ek hiru ezaugarri bereziten ditu:

- Gutxieneko elkarbizitza eta sistematizazioa. Hots, antolaketa eta harremanak.
- Iraunkortasuna, hau da, gizarte egiturak denboran zehar mantendu egiten dira. Beraz, gizarte egitura faktore estrukturalei begiratzen die.
  (koiunturala momentuan ematen dena, estrukturala denboran zehar ematen dena. Adibidez, unibertsitatean denbora epe jakin baterako datorren irakaslea koiunturala litzateke)
- Gizarte egitura ez da berdin gizarte egitura horien protagonistekin. Hots, gizarte egiturak pertsonekiko askatasuna izango luke, independenteak dira. Adibidez, Patxi Lopez gobernuan egotetik Urkullu egotera egitura ez da aldatu, aldatu dena pertsona izan da.

Hemendik abiatuta **eztabaida** nagusienetako batera joango ginateke: *Zerk du lehentasuna pertsonak ala gizarte egiturak? Zerk egiten du zer?* Gizarte egiturek pertsona, ala pertsonek gizarte egitura? DURKHEIMen arabera gizarte egituraren araberakoak, menpekoak gara, baldintzatu egiten gaituzte.

**EGITURA ETA EKINTZAREN ARTEKO LOTURA: OBJETIBISMOA VS. SUBJEKTIBISMOA**

Aipatu bezala, sarritan ematen da egitura eta prozesuaren arteko tentsioa. Soziologiaren hastapenetatik, hauxe izan da, bada eztabaida nagusienetakoa: norbanakoa askea al da nahi duena egiteko? edota egiturazko baldintzek baldintzatzen dute bere portaera?

Gizarte egitura eta ekintzaren inguruko eztabaida hobe ulertzeko teoria soziologikoan objetibismoa eta subjektibismoa aztertu behar ditugu:

- Objetibismoak gizarteak norbanakoekiko lehentasuna duela azpimarratzeko du. Honen harira, gizarte errealitatearen eta honen ikerketaren ardatza gizarte-instituzioak dira. Horrela, bada, ikuspegi honentzat gizartearen ezagutza gizarte aktoreen ideietatik aske egon behar da, eta ezagutza zientifikoa interpretazioetatik at gelditzen den behaketan oinarritu behar da hala. Ikus dezakegu, bada, objetibismoak positibismoarekin bat egiten duela.
- Subjektibismoak, ordea, norbanakoa gizarte errealitatea aztertzeko oinarria dela defendatzen du. Horrekin, zientzia fisikoen egitateak aztertzen dituzten bitartean (azalpenak) gizarte zientziek esanahiak aztertzen dituzte (ulermena). Azalpenek arrazoien legeak azaltzen dituzten bitartean, ulermenak esanahi ezberdinak lotzen ditu. Horrela, bada, giza portaera ezin da behatu soilik, baizik eta baita interpretatu ere.

Bi korronte hauen arteko eztabaida alde batera utzita, bakoitzak bere alde onak baditu. Horrela, bada, objetibismoak gizarteak eta gizarte instituzioek norbanakoen ekintza soilak baino haratago doazen egiturazko ezaugarriak dituztela azpimarratzen du, eta hau ezinbesteko elementua da gizarte errealitatea ongi ulertu nahi badugu. Teoria subjektibistak, aldiz, gizakien ekintzen atzean dauden baldintzak ulertzeko eta interpretatzeko aukera ematen digu.

Dena den, arriskuak ere badituzte bi korronteok. Objetibismoa erabateko positibismo eta determinismoan erori daiteke. Era berean, subjektibismoak erabateko erlatibismo eta gaizki ulertutako arrazionalizazio indibiduala (hedonismoa) ekar ditzake.

Objetibismoaren defendatzaileak dira Durkheim, egile funtzionalistak eta estrukturalistak. Subjetibismoaren aldean, ordea, Simmel, aukera arrazionalaren teoria edota etnometodologia kokatzen dira.

*'Los hombres hacen su propia historia, pero no la hacen a su libre arbitrio, bajo circunstancias elegidas por ellos mismos, sino bajo aquellas circunstancias con que se encuentran directamente, que existen y les han sido legadas por el pasado. (Marx)*

Honako esaldiari lotuta askeak bagara baina askatasun hori muga batzuen menpe ematen da. Beraz, erabakia ez da askea izango, eta norbanakoak egiten duen ekintza arrazionala litzateke garrantzitsuena.

Ikuspegi kritiko honen aurrean (objetibotasuna vs. Subjektibotauna; egitura vs. Egintza) eta dikotomia gainditzeko asmoz , Pierre BORDIEUk praktiken azterketari ekiten dio; Marxen ikuspuntutik abiatuta.

Bordieuren ustez praktikak ekintza eta egituraren harreman dialektikoaren ondorio dira. Horrela, bada, praktikak ez daude erabat baldintzatuta, baina ez dira erabateko askatasunean gauzatzen ere.

Tarteko bide hau azaltzeko Habitus kontzeptua bilatzen du Bordieuk. Habitusa askatasunean jarduteko ahalmena litzateke, baian beti ere gizarte egiturak ezarri dituen mugen barnean. Horrekin, Bordieuren aburuz gizarte egiturek hainbat ekintza baztertu egiten dituzte, ezinezko izango direlako.

Habitusa sozializazioaren bidez ematen da, egituraren barneratzearekin batera. Horrekin, gizabanakoak bere habitusaren arabera jardungo du; hala nola, bere klase-habitusaren arabera.

Nolabait esatearren, aukera objetiboaren eta esperantza subjektiboaren arteko moldaketa ematen da. Norbanakoak ezinezkoak dituen ekintzak baztertu egiten ditu automatikoki, ordenarekiko nolabaiteko sumisioz. Tarteko ikuspuntu honetan, Bourdieuz gain, Giddens, Berger eta Luckmann ere koka ditzakegu.

Aintzat hartzekoak:

- EGITURA: kokapena
- SISTEMA: egitura ezberdinen elkar-harreman edo eragina

*Gorkak dio ez duela hau azterketan galdetuko, zaila delako. Dena den, begiratu bat bota (bereziki HABITUS-ari).

# 2. gaia:

# EUSKAL HERRIA: IZENA ETA IZANA

## Zer da Euskal Herria?

1997an 'Pais Vasco', 'Euskadi' eta Euskal Herria' gauza bera zirela aipatu ziren, baina ez dago argi zeintzuk osatzen zuten hau.  Egun, EAE; Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak osatzen dute.

- Nazionalismoa eta patriotismoa ez dira gauza bera.

Egilearen arabera abertzalea ez da nazionalista patriota baizik. Adibidez, Bernardo Atxaga ez da euskal nazionalista baina patriota edo abertzalea bai, Euskal Herriaren alde egiten du. Hots, hau proiektu politikoetatik alde egiten du.

- Patriota: bere lurra defendatu eta maite duena
- Nazionalista: nazioa edo egitate nazionala azpimarratzen duen jokabide, doktrina edota ideologia politikoa da.

**EUZKADItik EUSKADIra**

EUZKADI:
- Sabino Arana → EAJ
- Zazpi probintziek osatzen zuten (Araba, Bizkaia, Nafarroa, Zuberoa, Gipuzkoa,
- Gerra Zibilean erabiltzen zen termino hau.

EUSKADI:
- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)
- Sozialistek, Euskal Errepublikanoek eta Ezker Abertzaleek erabiltzen zuten.

Bernardo Atxagak aldaketa hau ETAren sorrerak eta hilketak eta Ezker Abertzalearen sorrerak eragin zuten. Euskadirekiko atxikimendua lortu zuenean formakuntza politikoa ez zen existitzen; hargatik, ETA sortu zenean aldaketa eman zen hauek formakuntza politiko bat zutelako.

**ZER DA EUSKAL HERRIA?**

Izenak garrantzitsuak dira? Izenek badute garrantzia hauen atzean esanahiak daudelako eta ez da berdina izan bat edo bestea erabiltzea.

Izen ezberdinak errealitate bat osatzen dute: hots, izenak zehaztasun bat ematen du.

- Euskal Herria
- Euzkadi
- Euskadi
- País Vasco
- Comunidad Autonoma del País Vasco
- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)
- Vascongadas

- Vasconia
- Pueblo Trabajador Vasco
    - Langile mugimendu abertzale ezkerrak honela definitzen zuen euskalduna izatea; Euskal Herrian lan egiten duena eta bizi dena izango da euskalduna.

Baina, aurreko listari erreparatuta aipatu beharra dago izenen erabilerek kutsu politikoa dutela, hau da, erabiltzen duenaren araberakoa izan da, eta izango da izan horren esanahia.

**GRAFIKOEN JORRAKETA:**

**1) Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria?**




(2006ko grafikoa litzateke hau)

Argi dago, lurraldearen arabera, erantzunak nahikoa ezberdinak direla. Ezberdintasun nabarmenena EAE eta Nafarroan emandako erantzunak Ipar EHrekin alderatuta ikusten dira. Izan ere, Ipar EHn %35,50ak Ipar EH hartzen du Euskal Herritzat.

Horrekin, zentzu bera ematen al zaio Euskal Herriari hiru eremuetan? Bada, izan liteke Iparraldean kutsu politikoa baino kulturalagoa ematea.

Era berean, Euskal Herri osoko (7 probintziak) emaitzek EAEkoen antza dutela esan genezake. Izan ere, EAEn bizi da EHko biztanleriaren gehiengoa. Zentzu berean, berdina gertatzen da EAEn Bizkaiarekin. Biztanleriaren gehiengoa bizkaitarra izaki, EAEko emaitzetan bizkaitarrek dute pisu handiena.

**2) Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria?**

| | EAE | | NAFARROA | | IPARRALDEA |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskal Herriko zazpi probintziak | 30 | Euskal Herriko zazpi probintziak | 26 | Euskal Herriko zazpi probintziak | 35 |
| EAE | 32 | EAE | 38 | Hegoaldea (EAE+Nafarroa) | 4 |
| EAE+Nafarroa | 6 | EAE+Nafarroa | 10 | Iparraldea | 10 |
| Iparraldea | 1 | Iparraldea | 1 | Iparraldeko barnealdea | 31 |
| Bizkaia+Gipuzkoa | 22 | Bizkaia+Gipuzkoa | 14 | Iparraldeko kostaldea | 16 |
| Ez dakit Euskal Herria zer den | 1 | Ez dakit Euskal Herria zer den | 3 | Ez dakit Euskal Herria zer den | 0 |
| Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da | 0 | Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da | 1 | Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da | 0 |
| Ed/Ee | 7 | Ed/Ee | 7 | Ed/Ee | 3 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | (Ehuneko bertikalak) | 100 | (Ehuneko bertikalak) | 100 |

(hauek inkesta baten emaitzak dira)

Emaitza hauetan biztanleriaren irudikapenak dira nabarmentzen direnak. Erantzun hauetan, bada, litekeena da faktore kulturalak izatea aintzat hartutakoak. Zentzu horretan, zer da EHren erakusleiho? Sokatira ala Maluma?

Dena den, argi dago EAE-zentrikoak garela. Izan ere, lurraldeaz mintzo garenean garrantzia handiena hartzen duen eremua EAE izaten da.

**EZTABAIDAK:**

Zentzu horretan, eguraldiaren maparen inguruan (telebista) izandako eztabaidak zein Gipuzkoan EHBilduren agintaldian jarritako errepide-seinaleen aferen inguruko eztabaidak, argi uzten du izenaren eta kontzeptuaren inguruan eztabaida badela eta garrantzia baduela.

- Eguraldiaren mapak: gaur egun EH ageri da euskal kateetako eguraldi saioetan; PSOE gobernuan zegoenean Nafarroa eta Ipar EH irudikatzeaz gain, Errioxa eta beste hainbat lurralde ere irudikatzen ziren eztabaida ekidite aldera; Espainiar kateetan ordea EAE soilik ageri da.

- Gipuzkoako Foru Aldundian EH Bilduren agintaldi unea zenean, sarreretan 7 probintzien izen eta ikurrak jarri zituzten, Euskal Herriaren izenpean. Nafarroako Gobernuak (UPN) helegitea jarri eta Nafarroako eta Iparraldeko ikurrak kendu zituzten. Izan ere, nor da, bada, Gipuzkoako Gobernua gainontzekoei zer diren esateko?
  Honen aurrean aipatu beharra dago Gipuzkoako Gobernua ez dela inor besteei zer diren esateko. Baita aipatu Nafarroan bertan aniztasun handia dagoela (Tafallako baten eta Elizondoko baten sentimenduak ez dira berdinak izango errealitate ezberdinetan bizi direlako) nahiz eta nafar askori euskaldunak direla esatea ez gustatu.




**Eztabaidaren erpinak:**

Honakoak dira, bada, izenari dagokion eztabaidan nabarmentzen diren hiru dimentsioak:

Dimentsio kulturala



Dimentsio ideologikoa

Dimentsio administratiboa

- *Dimentsio kulturala:* euskara eta euskal kulturaren eremua
- *Dimentsio ideologikoa:* estatu bat eratu behar duen eremua ala eratu behar ez duena
- *Dimentsio administratiboa:* hiru administraziotan eta bi estatutan banatuta dagoen eremua

Batzuentzat soilik izaera kulturala du, eta beste batzuentzat kultural eta politikoa da, administratiborantz jo beharko lukeena. Ikuspegi anitzak ditu.

Laburbilduz, esan genezake hiru dimentsio horien elkar-harremana dela eztabaidan eragina duena.

Euskadi izan da historikoki kontzeptua, baina azkenean Ezker Abertzaleak aldatu zuen hori.

**Izena eta izana?**

- Nahasmen terminologiko handia dago, baita EAEko estatutuan bertan ere. Eztabaida semantikoa zein politikoa izan daiteke. Terminoek, hala, beren baitan esanahi zehatzak dituzte.

- Aldaketa semantikoak: Eus(z)kaditik Euskal Herrira. Honakoa Euskal abertzaletasunaren hegemoniaren inguruko borrokarekin erlaziona genezake.
- Izenaren garrantzia: nola deitu besteei? Zu zer zara? Eta besteen identitatea zuk definitzen duzunean? Nafar bati euskalduna dela esatean edota EAEko bati espainiarra dela esatean …

**GRAFIKOEN JORRAKETA:**

### 3) Euskal Herria aintzat hartzen duten botoen ehunekoa, 2012

2012ko Udal Hauteskundeetan boto euskaldunak aintzat hartzen dituztenak dira honakoak, hau da, EH Bildu eta EAJren ingurukoak hain zuzen ere. (EH aintzat hartzen duten partaidearen bozkak %). Mapa honetan ikusi dezakegu Euskal Herriko herri gehienek Euskal Herria aintzat hartzen dutela; finean, ez delako datua emateko modu eraginkorra (hau da, datuak emateko moduak asko alda dezake gure interpretazioa).

Euskal Herria aintzat hartzen dituzten botoen ehunekoa. 2012.




### 4) Hauteskunde emaitzak EAEn eta Nafarroan

**EAEko hauteskundeen emaitzak, 2016**

| | | | |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV | 398.168 | 37,60% | 28 |
| EH BILDU | 225.172 | 21,26% | 18 |
| PODEMOS/ AHAL DUGU-IU | 157.334 | 14,86% | 11 |
| PSE-EE/PSOE | 126.420 | 11,94% | 9 |
| PP | 107.771 | 10,18% | 9 |
| C´S | 21.477 | 2,03% | 0 |
| PACMA/ATTKA | 8.589 | 0,81% | 0 |
| GANEMOS | 6.049 | 0,57% | 0 |
| RECORTES CERO-GV | 2.747 | 0,26% | 0 |
| PFYV | 1.836 | 0,17% | 0 |
| EB-AZ | 1.288 | 0,12% | 0 |
| VOX | 771 | 0,07% | 0 |
| EK-PCPE | 466 | 0,04% | 0 |
| O.E. | 374 | 0,04% | 0 |
| PH | 351 | 0,03% | 0 |
| LN | 191 | 0,02% | 0 |



**Nafarroako hauteskundeen emaitzak, 2015**

| Hautagaitzak | Botoak | % |
|---|---|---|
| UPN | 92.705 | 27,44% |
| Geroa Bai | 53.497 | 15,83% |
| EH Bildu | 48.166 | 14,25% |
| Podemos | 46.207 | 13,67% |
| PSN | 45.164 | 13,37% |
| PP | 13.289 | 3,93% |
| I-E | 12.482 | 3,69% |
| Ciudadanos | 9.993 | 2,96% |
| PACMA | 2.304 | 0,68% |
| Equo | 2.170 | 0,64% |
| UPyD | 1.740 | 0,51% |
| RCN-NOK | 1.733 | 0,51% |
| LN | 955 | 0,28% |
| SAIn | 880 | 0,26% |




Laburbilduz, esan genezake indar abertzaleak urriagoak direla Nafarroan EAEn baino (aintzat hartuta Nafarroan Podemos ez dela abertzaletzat hartu).

Ordea, zer gertatuko da 2019ko hauteskundeetan? Izan ere, gaur gaurkoz, elkarbizitzarako prestutasuna duten hiru administrazio ditugu; ordea, honakoa alda dadin aukerak badaude (UPN Nafarroan eta abarrak).

## 2.2 EUSKAL HERRIKO EGITURA ADMINISTRATIBO ETA POLITIKOA

Gaur egun ez dago Euskal Herria (7 probintziak) bere osotasunean jasotzen duen erakunde administratibo edo politikorik. Hots, Euskal Herria hiru egitura administratibo eta politikotan banatzen da: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Nafarroako Foru Erkidegoa eta gaur egun Pirineo Atlantikoetako Departamentuan (Biarnorekin batera, 2017tik aurrera) kokatzen den Iparraldea.

Esan bezala, gaur egun elkarkidetzarako (nahiz mugatua izan) prestutasuna dute Euskal Herriko hiru administrazioek. Ordea, hemendik aurrera zer?

Dena den, badira hiruak batzen dituzten marko batzuk: elkarkidetza organoak (Naf eta EAE) zein euroerregioak.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA:**

Euskal Autonomia Erkidegoa Gernikako Estatutuarekin batera sortu zen, 1979an; izan ere, 78ko Konstituzioak aukera eman zuen horretarako.

Bertan jasotzen dira, beti ere Konstituzioan onartutakoari hertsiki lotuta, EAEren definizioa eta Estatuarekin izan beharreko harremanaren nolakotasuna. Era berean, zehaztuta dago zein diren eskumen esklusiboak (erkidegoarenak) eta zein espainiar estatuarenak.

**Eskumen banaketa:**

Esan bezala, Estatutuan zehaztuta dago zein izango diren EAEren eskumen esklusiboak eta zeintzun, aldiz, Estatuarenak.

Konstituzioak (ustez 162 eta 163 artikuluetan) honakoa dio: serán competencias del estado … hurrengoan: serán competencias esclusivas de las autonomías … Hots, bereizketa egiten da eskumenen artean.

Urtero eskumenen transferentziarako negoziazioak egiten dira, eta badago jokoan dagoen eztabaidagai bat: kartzela. Izan ere, EAErena beharko lukeela azaltzen da, baina hainbat faktore politikorengatik oraindik ez da honakoa burutu. Horrela, bada, Madrilen negoziatu izan da.

Espainiaren eskumenak esklusiboak:

- Ejertzitoa edo armada
- Erreferendumak
- Mugak
- Aireportuak
- Portuak
- Kostak

EAEren eskumen esklusiboak:

Eskumen hauei dagokienez, azpimarragarria da EAEk askatasun batzuk dituen arren, marko orokorra Espainiak zehazten duela. Hots, Espainia beti dago gainetik.

- Osasuna
- Hezkuntza
- Gizarte zerbitzuak
- Hiritar segurtasuna

Hemen ikus daiteke esklusibotasunaren eztabaida: noraino izan daitezke ezberdin hezkuntza sistemak? Euskal Hezkuntza Sistemak nahi duena eman dezake?

Banatutakoak:

Beste hainbat dago.

Esan bezala, ordea, auzitegi konstituzionalak (eskumenak zehazten dituena) gehiago begiratu du Espainiara. Hots, Espainiaren gainjartzea onartu da, horrek marko orokorra ezartzea alegia.

Adibidez, funtzionarioen Gabonetako paga. 2007 inguruan dependentziaren gaia EAErena (gizarte zerbitzuengan) izateak eztabaida sortu zuen baita ere.

Zentzu horretan, eusko jaurlaritzak lege bat onartzen duenean Espainiak helegiteak jartzen ditu bere eskumenak urratuak direlakoan. Abokatuek, hala, etengabe esparruen defentsa burutu behar izaten dute.

**EAE eta Kontzertu ekonomikoa:**

Euskal Autonomia Erkidegoa gainontzeko erkidegoetako autonomia estatutuekin alderatuz gero, ezberdintasun nagusi bat topa dezakegu: hots, Euskal Autonomia Estatutua antzinako foru erregimenaren gaurkotzetik sortu zen.

Aipatutakoaren ondorioz, Kontzertu ekonomikoaren gaurkotzea ematen da Estatutuarekin batera. 1876an Foruak abolitu zirenean, Kontzertu ekonomikoa bereizgarri gisa mantendua izan zen. Frankorekin batera Bizkaia eta Gipuzkoan (provincias traidoras) bertan behera geratu bazen ere, Araba

eta Nafarroan mantendu egin zen. Gerora, esan bezala, 79ko Estatutuarekin Kontzertu ekonomikoa berriro abiarazi zen Bizkaia eta Gipuzkoan.

.

**EAE osatzen duten erakundeak:**

- Eusko Jaurlaritza: Botere exekutiboa du eta Lehendakariak eta sailburuek osatzen dute. Gerora, honek gobernua eratzen du.
    - Lehendakaria: Gobernuburua da. Legebiltzarrak hautatzen du.

- Eusko Legebiltzarra: Botere legegilea du. Legebiltzarrean 75 diputatu daude, 25 lurralde historiko bakoitzeko (honek desorekak eragin ditzake, ez baita proportzionala; hots, Arabako legebiltzarkide batek biztanle gutxiago ordezkatzen du Bizkaiako batek baino). Legealdi bakoitza 4 urtekoa da.

  Zentzu honetan, gogora ekarri beharrezkoa da hauteskunde sistema proportzionalak eta gehiengozkoak bereizten direla (AEB vs. EB). Hauteskunde sistema ez proportzionala izateak, EAEren kasuan, helburu bat duela esan genezake:
    - Alde batetik, bizkaitarren diktadura ekiditea: proportzionala izatekotan legebiltzakideen gehiengo handiena bizkaitarra bailitzateke.
    - Arabako botoei pisua eman nahi zitzaien, indar ez abertzaleek pisu handiagoa baitzuten. Zentzu berean erabaki zen honakoa hiriburu administratibo egitea.

- EAEko Justizia Auzitegi Gorena: Erkidegoko justizia arlo gorena da.

- Arartekoa: Herritarren defendatzailea. Eusko Legebiltzarrak hautatzen du (3/5eko onarpenarekin) eta bost urtetarako iraupena du hautaketak. Esan bezala, instituzio honen ardura EAEko administrazio publikoek legea betetzen duten ala ez berrikustea da; funtzionamendurako, hiritarrek kexak adierazten dituzte bertan (EHUko aldezlearen gisakoa).
    - Aipatutako aukeraketa era horrekin balizko neutraltasun bat bilatzen da: alderdikeriarekin apurtuaz (alderdi baten botoak baino gehiago behar dira eta hautaketa aldiek ez dute bat egiten alderdien agintaldiekin).

- Espainiar Estatuaren administrazio orokorra: honek espainiar gobernua ordezkatzen du, gobernuaren delegazio bidez. Gobernu ordezkari bat dago (garaiko Gobernador Civilrekin aldera litekeena) EAEn eta hiru azpi-ordezkari (subdelegados) lurralde historiko bakoitzean bana.

- Erakundeez gain, azpimarratzekoa da EAEko probintzia edo Foru Aldundien izaera. Izan ere, Espainiako gainontzeko probintziak ez bezala, ez dira probintzia hutsak. Hots, Lurralde Historikoak dira. Izaera horrekin, hainbat berezitasun dituzte (Foru zuzenbidetik datozenak).
    - Foru aldundiek izaera exekutiboa dute, lurralde historiko bakoitzeko bat; honen buru Ahaldun nagusia delarik.
    - Botere legegilea Batzar Orokorrak du.

  Horrela, honakoak dira EAEren baitako hiru erakunde autonomoek dituzten eskumenak:
    - Errepideak eta azpiegiturak
    - Hirigintza

- Ingurumena eta basoak: pinuen adibidea
- Ondare kulturala
- Gizarte ongizatea edo gizarte zerbitzuak
- Fiskalitatea eta zergak: eskumen garrantzitsu edo aipagarriena

**Euskal Herriko fiskalitatea:**

Esan bezala, EAEren baitan sistema autonomo batzuk ditugu Foru Aldundiak direla eta. Hauen eskumenen artean aipagarriena zerga eta fiskalitateari dagokiena da. Hots, EAEko zergak foru aldundiek jasotzen dituzte.

Bereizgarri instituzional honek izaera berezia ere ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, izaera sasi-konfederala hartzen baitu, eta sarritan liskarrak sorrarazten baitira Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean zein Foru Aldundien artean.

Dagoeneko aipatu bezala, fiskalitateak berebiziko garrantzia du EAE eta Nafarroan. Izan ere, beste erkidegoek ez bezala, fiskalitate propioa dute Kontzertu Ekonomikoa (Konbenioa) eta Kupoaren bidez. Izan ere, Espainiar Estatuaren agentzia tributarioaren bidez, Estatua bera da zerga guztiak jaso eta, gerora, horiek gestionatu eta erkidegoetara itzultzen dituena.; EHko lurraldeetako salbuespenak kenduta.

- **EAEren kasua:**

Esan bezala, EAEk fiskalitate propioa dauka. Kontzertu Ekonomiko deritzon honen ezaugarri nagusiena da EAEk bere zerga sistema propioa duela; hots, EAEn bertan jasotzen eta kudeatzen dira zergak. Honekin, eta Estatuak eskaintzen dituen eskumenengatik, zerga horien zati bat Estatuari ematen dio EAEk, Kupoa deritzona. Eskumen edo zerbitzu horien artean kokatzen dira polizia nazionala eta abarrak.

Horrekin, gainontzeko erkidegoei diru-sarrerak Estatuak ematen dizkien bitartean, EAEn alderantzizkoa da. Kontzertu ekonomikoak Konstituzioan zein Autonomia Estatutoan du oinarri juridikoa. Foru Aldundi bakoitzak, hala, fiskalitatean arautzeko eskumena du, nahiz eta ***armonizazioa*** bultzatzen den eta praktikan ezberdintasun ez oso handiak onartzen diren. Hau da, Eusko Jaurlaritzak ez dirurik, diputazio edo Foru Aldundiek baizik (hauek ematen diote, gerora, jaurlaritzari).

Desorekei lotuta, Araban biziz gero, adibidez, zerbitzu hobeak izango ditugu Bizkaian ala Gipuzkoan baino. Ley De Territorios Históricos-ek biltzen ditu honakoak.

Kupoarekin, Espainiar Estatuak ematen dituen eskumenak ordaintzeaz gain, Estatuaren interesak eta elkartasun fondoak ere ordaintzen dira; horrekin, %6,24ko zifra kalkulatua baliatzen da. Hots, ulertzen da EAEk Espainiako ekonomian duen pisua halakoa dela (BPGean).

Kupoa bost urtero negoziatzen bada ere, zifra hori aldatu eta EAEk Espainiar Estatuari eman beharreko diru kopurua zehazteko, 80.hamarkadatik aurrera finko mantendu den zifra da 6,24koa. Gai oso eztabaidatua da.

Honekin, bada, EAEko egitura oso berezia da; batetik autonomia fiskala dagoelako, baina baita hiru lurralde historiko daude Euskadirekiko autonomia asko dutenak.

**NAFARROAKO FORU ELKARGOA:**

Nafarroako Foru Elkargoa arautzen duen legea “Ley de Amejoramiento Foral” deiturikoa da. Honakoa 82an onartu zen, eta berezia da: izan ere, Frankismo garaitik datorren autonomia bakarra da Espainiar Estatuan.

Garai hartan, arriskua ikusten zen, erreferendum bidez, Nafarroa EAEren baitan sartzekoa (PSN bera ere horren aldekoa zen). Hori ekiditeko, bada, azpilanean onartu zen legea izan zen aipatutakoa.

**Nafarroa osatzen duten erakundeak:**

- Nafarroako parlamentua edo legebiltzarra: 50 legebiltzarkide, honakoa parea da (berdinketak ahalbidetzen dira).
- Foru aldundia eta Nafarroako Gobernua
- Arartekoa: herriaren defendatzailea
- Camara de Comptos: Tribunal de cuentasen gisakoa, administrazio publikoaren diru sarrerak eta gastuen kontrola burutzen duena, jarduera ekonomikoa, alegia.

**Nafarroako fiskalitatea:**

Esan bezala, Nafarroak ere fiskalitate propioa du, Nafar Konbenioaren (Convenio Navarro) ondorioz. Funtzionamenduari dagokionez, EAEren antzekoa da.

**IPARRALDEA:**

Euskal Herria osatzen duten hiru probintzia (Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behera) Frantziar Errepublikan koaktzen dira. Zehazki, Pirineo Atlantikoak izeneko departamentuaren baitan kokatzen dira, Bearnorekin batera, Akitaniako eskualdean.

2017tik aurrera, ordea, Ipar Euskal Herriko herriak batzen dituen egitura administratibo bat dugu; hots, Euskal Herri Elkargoa deiturikoa. Horrekin, bada, badugu Iparraldea (Eskiula herria salbu) barnebiltzen duen egitura bat.

Elkargo honek aurretiaz Estatuak, Eskualdeek zein Departamentuek zituzten hainbat eskumen bereganatu ditu. Dena den, Elkargoak duen eskumen maila ezin aldera daiteke EAE zein Nafarroan dagoenarekin; hots, mankomunitate baten antza handiagoa du. Honakoak dira eskumen horiek:

- Mugaz gaindiko elkarkidetza
- Kultura eta hizkuntza
- Ingurumena
- Bidaiarien kudeaketa

Dena den, sinbolikoki (eta baita haratago ere) garrantzitsua da honakoa, unitate administratibo ofiziala baita Iparraldea.

Gehigarria: IRPFa, *impuesto sobre la renta de las personas físicas*

Aipatu dugun bezala, fiskalitatea lurralde historikoen eskumena da EAE eta Nafarroaren kasuan. Fiskalitate honen baitan kokatzen da, bada, IRPFaren erregulazioa. Zentzu honetan, aipagarria da honek hainbat dedukzio izaten dituela:

- Haurrak izateagatik
- Ezintasunak izateagatik
- Etxe bat alokairuan izateagatik
- Pentsio fondoak izatea

Hots, honen atzean erabaki politikoak daude

Demagun nik 100.000€ irabazten ditudala, eta dagokidan IRPFaren %a %45 dela (erregresiboa da), 45.000€ ordaindu beharko dut. Ordea, dedukzioak daude. Pentsio fondoen dedukzioa IRPFaren %aren araberakoa da, hots, honakoa ere erregresiboa da. Horrekin, pentsio fondoan 2000€ sartzen baditut, 2000€ren %45a itzuliko didate. Hots, dedukzio handiagoa egiten zaio pentsio fondoetan dirua sartzeko duenari, hots, izatez IRPF % handiagoa ordaindu behar duenari.
Autonomia fiskal edo fiskalitate horrek, ahalbidetzen du Lurralde Historiko bakoitzean zerbitzu ezberdinak jasotzea (hots, batzuetan besteetan baino hobeak). – Lurralde Historikoen Legea dela eta.

# 3. gaia:

# EUSKAL IDENTITATEA ETA KULTURA

## LURRALDETASUNA

**EUSKAL IDENTITATEA:**

EUSKAL HERRITARRA ETA ASPAINIARRA/FRANTSESA IZATERAREN ARTEAN, NOLA SENTITZEN DUZU ZURE BURUA?

| | EAE | | IPARRALDEA |
|---|---|---|---|
| Euskal herritarra | 40 | Euskal herritarra | 11 |
| Euskal herritarra espainiarra baino gehiago | 15 | Euskal herritarra frantsesa baino gehiago | 5 |
| Euskal herritarra bezain espainiarra | 28 | Euskal herritarra bezain frantsesa | 24 |
| Espainiarra euskal herritarra baino gehiago | 3 | Frantsesa euskal herritarra baino gehiago | 16 |
| Espainiarra | 6 | Frantsesa | 36 |
| Beste | 5 | Beste | 7 |
| Ed/Ee | 4 | Ed/Ee | 1 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | (Ehuneko bertikalak) | 100 |
| BITARIKO NORTASUNA* | 46 | BITARIKO NORTASUNA* | 45 |

* Euskal herritarra espainiarra baino gehiago + euskal herritarra bezain espainiarra + espainiarra euskal herritarra baino gehiago edo euskal herritarra frantsesa baino gehiago + euskal herritarra bezain frantsesa + frantsesa euskal herritarra baino gehiago.

EAEn euskal herritarra (%40) eta espainiarra (%6) sentitzen dira, baina badago talde sendo bat bitariko nortasuna duena, hau da, euskalduna eta espainiarra sentitzen dena. Iparraldean, aldiz, gehiago dira frantses sentitzen direnak (%36) euskal herritar sentitzen direnak (%11) baino. Hemen ere badira tartean sentitzen direnak.

Beraz, identitate kulturalak ez dira binarioak. Errealitatea aztertu behar dugu den bezalakoa onartuta. Adibidez, euskal herritarren %25ek ez du bertsolaritza ezagutzen.

IDENTITATE SENTIMENDU BAT: ***(azterketan sar daiteke)***

Taulari erreparatuta gehiengo handi bat euskal herritarra sentitzen da. Gainera, aipatu beharra dago gazteak euskaldunago sentitzen direla, hau da, gero eta gazteagoa izan euskal herritar sentimenduak garrantzia handiagoa du. Nafarrekin ere gauza bera gertatzen da, gero eta gazteago gero eta euskaldunago sentitzen dira. Euskararen erabilerak ere lotura du horrekin, hau da, euskara erabiltzen dutenak dira euskal herritar sentitzen direnak.

Jatorriari dagokionez, etorkinak direnak ez dira euskal herritar sentituko, baina bere gurasoak etorkinak dituztenak, berriz, bai sentituko dira euskal herritar.

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Gehienbat euskal herritarra | 44 | 57 | 10 | 17 | 44 | 43 | 51 | 46 | 40 | 38 | 23 | 55 | 75 |
| Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | 23 | 29 | 0 | 24 | 22 | 23 | 21 | 22 | 23 | 25 | 25 | 27 | 16 |
| Gehienbat espainiarra/frantsesa | 12 | 9 | 5 | 53 | 12 | 13 | 7 | 10 | 15 | 18 | 20 | 5 | 3 |
| Gehienbat nafarra | 7 | - | 38 | - | 8 | 7 | 8 | 8 | 7 | 7 | 13 | 3 | 1 |
| Nafar-espainiarra | 4 | - | 19 | - | 4 | 4 | 3 | 3 | 4 | 6 | 7 | 0 | 0 |
| Euskal herritarra-nafarra | 3 | - | 15 | - | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 1 | 2 | 5 | 3 |
| Bestelakoak | 7 | 5 | 13 | 7 | 7 | 6 | 7 | 8 | 7 | 5 | 9 | 6 | 3 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | JATORRIA | | |
|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai |
| Gehienbat euskal herritarra | 12 | 49 | 58 |
| Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | 30 | 31 | 15 |
| Gehienbat espainiarra/frantsesa | 33 | 7 | 4 |
| Gehienbat nafarra | 6 | 6 | 9 |
| Nafar-espainiarra | 4 | 2 | 5 |
| Euskal herritarra-nafarra | 1 | 2 | 5 |
| Bestelakoak | 15 | 4 | 4 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 |

ZURE USTEZ ZEINTZUK DIRA BI BALDINTZA GARRANTZITSUENAK PERTSONA BATEK BERE BURUA EUSKAL HERRITAR IZATEKO?

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Euskal herritar izan nahi izatea | 42 | 46 | 41 | 14 | 42 | 42 | 44 | 47 | 41 | 35 | 35 | 46 | 51 |
| Euskal Herrian bizi eta lan egitea | 41 | 46 | 31 | 24 | 41 | 41 | 35 | 42 | 45 | 41 | 43 | 45 | 35 |
| Euskal Herrian sortua izatea | 39 | 36 | 42 | 53 | 38 | 39 | 47 | 36 | 35 | 39 | 44 | 37 | 30 |
| Euskaraz hitz egitea | 17 | 16 | 10 | 40 | 17 | 17 | 22 | 14 | 17 | 17 | 11 | 8 | 34 |
| Euskal herriaren defendatzaile izatea | 16 | 17 | 13 | 13 | 16 | 15 | 15 | 15 | 16 | 17 | 14 | 16 | 18 |
| Arbaso euskaldunak izatea | 9 | 5 | 16 | 31 | 9 | 9 | 11 | 8 | 9 | 10 | 12 | 7 | 5 |
| Abizen euskaldunak izatea | 4 | 3 | 7 | 6 | 4 | 4 | 4 | 3 | 4 | 6 | 5 | 4 | 2 |
| Euskal dantzak, musika, kantua edo antzerkia praktikatzea | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| Euskal kirol edo jokoak praktikatzea edo zalea izatea | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| Beste baldintza bat | 3 | 3 | 5 | 3 | 4 | 2 | 4 | 3 | 3 | 2 | 2 | 6 | 3 |
| Ed/Ee | 4 | 4 | 8 | 3 | 4 | 5 | 2 | 5 | 4 | 7 | 6 | 3 | 1 |

* Batura ez da 100, bi baldintza aipatzeko aukera zegoelako.

Hirugarren baldintzari erreparatuta etorkinak ez dira euskaldun sentitzen.

***Eskala ideologikoa eta nazionalista*** (EAEko datuak dira)

Eztabaida ez dago ezker/eskuin artean nazionalismoaren eskalan baizik. Beraz, EAE zentro ezkerrean kokatuta dago.

**EUSKAL KULTURA**

ZER DA ZURETZAT EUSKAL KULTURA?

| Definizioarekin ados daudenen % | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Euskal Herriari buruzkoa | 71 | 71 | 68 | 70 | 70 | 71 | 70 | 71 | 71 | 69 | 70 | 77 | 69 |
| Euskal Herriko jendeak egindakoa | 70 | 74 | 64 | 54 | 70 | 70 | 70 | 70 | 71 | 68 | 67 | 75 | 72 |
| Euskal Herrian egindakoa | 60 | 63 | 52 | 51 | 60 | 60 | 55 | 60 | 65 | 58 | 60 | 62 | 57 |
| Euskaraz egindakoa | 47 | 48 | 43 | 56 | 48 | 47 | 48 | 43 | 47 | 54 | 44 | 49 | 52 |

| Definizioarekin ados daudenen % | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | Gehienbat espainiarra/frantsesa | Bestelakoak |
| Euskal Herriari buruzkoa | 67 | 74 | 71 | 64 | 81 | 72 | 63 | 74 | 64 | 68 |
| Euskal Herriko jendeak egindakoa | 66 | 72 | 71 | 58 | 80 | 74 | 58 | 70 | 63 | 72 |
| Euskal Herrian egindakoa | 63 | 59 | 58 | 48 | 59 | 58 | 52 | 63 | 61 | 66 |
| Euskaraz egindakoa | 48 | 44 | 49 | 43 | 54 | 54 | 34 | 39 | 46 | 43 |

* Batura ez da 100, definizio bakoitzari buruzko adostasunaz galdetu delako; ez zegoen definizio bakar bat aukeratu beharrik.

Beraz, euskal kultura (datuen arabera) euskal herriari buruzkoa edota euskal herriko jendeak idatzitakoa dira. Iparraldean gehiago lotzen da euskal kultura euskararekin. Interesgarria den heinean oso labainkorra da euskal kulturaren kontua.

Hortaz, euskal kultura ez da euskaraz idatzitako kultura izan behar.

NOLAKOA DA ZURE USTEZ EUSKAL KULTURA?

| Batezbestekoa (1-5) | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Ez abegitsua - Abegitsua | 4,4 | 4,4 | 4,4 | 4,4 | 4,4 | 4,4 | 4,4 | 4,3 | 4,5 | 4,5 | 4,4 | 4,4 | 4,5 |
| Indibidualista - Jendartekoa | 4,1 | 4,1 | 4,0 | 4,3 | 4,1 | 4,1 | 4,0 | 4,1 | 4,1 | 4,3 | 4,0 | 4,1 | 4,2 |
| Itxia - Irekia | 3,8 | 3,9 | 3,7 | 3,9 | 3,8 | 3,9 | 3,8 | 3,8 | 3,8 | 4,1 | 3,8 | 3,8 | 4,0 |
| Iraganekoa - Etorkizunekoa | 3,6 | 3,6 | 3,7 | 3,7 | 3,6 | 3,7 | 3,6 | 3,6 | 3,7 | 3,8 | 3,6 | 3,6 | 3,7 |
| Erlijiosoa - Laikoa | 3,2 | 3,1 | 3,4 | 3,8 | 3,2 | 3,3 | 3,6 | 3,3 | 3,0 | 2,9 | 3,3 | 3,1 | 3,2 |
| Baserrikoa - Hirikoa | 3,1 | 3,2 | 3,1 | 3,0 | 3,0 | 3,2 | 3,1 | 3,2 | 3,0 | 3,3 | 3,2 | 3,2 | 3,1 |

| Batezbestekoa (1-5) | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | Gehienbat espainiarra/frantsesa | Bestelakoak |
| Ez abegitsua - Abegitsua | 4,4 | 4,3 | 4,5 | 4,4 | 4,6 | 4,5 | 4,3 | 4,3 | 4,3 | 4,3 |
| Indibidualista - Jendartekoa | 4,0 | 4,0 | 4,2 | 3,9 | 4,4 | 4,3 | 3,8 | 3,9 | 3,9 | 4,0 |
| Itxia - Irekia | 3,8 | 3,7 | 3,9 | 3,7 | 3,9 | 4,1 | 3,5 | 3,6 | 3,7 | 3,5 |
| Iraganekoa - Etorkizunekoa | 3,7 | 3,5 | 3,7 | 3,7 | 3,9 | 3,8 | 3,6 | 3,5 | 3,4 | 3,6 |
| Erlijiosoa - Laikoa | 3,2 | 3,4 | 3,2 | 3,4 | 3,3 | 3,1 | 3,5 | 3,1 | 3,5 | 3,3 |
| Baserrikoa - Hirikoa | 3,3 | 3,1 | 3,1 | 3,1 | 3,0 | 3,1 | 3,1 | 3,2 | 3,0 | 3,2 |

EUSKAL KULTURAREKIN LOTZEN DIREN ELEMENTUAK:

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Euskara | 53 | 55 | 52 | 43 | 55 | 51 | 61 | 61 | 46 | 42 | 47 | 57 | 62 |
| Dantza | 34 | 33 | 35 | 38 | 26 | 41 | 36 | 32 | 34 | 33 | 37 | 34 | 28 |
| Pilota | 31 | 30 | 34 | 32 | 34 | 28 | 31 | 25 | 32 | 38 | 36 | 25 | 26 |
| Herri kirola | 30 | 33 | 30 | 9 | 34 | 27 | 30 | 30 | 32 | 28 | 29 | 31 | 32 |
| Ohiturak | 24 | 25 | 22 | 27 | 25 | 24 | 23 | 29 | 26 | 16 | 21 | 26 | 29 |
| Gastronomia | 22 | 24 | 17 | 19 | 21 | 24 | 25 | 23 | 20 | 21 | 23 | 25 | 19 |
| Musika | 15 | 16 | 11 | 19 | 14 | 16 | 14 | 16 | 16 | 16 | 15 | 20 | 13 |
| Jaiak | 9 | 9 | 6 | 18 | 9 | 10 | 14 | 8 | 8 | 9 | 9 | 7 | 12 |
| Literatura idatzia | 7 | 8 | 4 | 2 | 7 | 7 | 6 | 8 | 9 | 6 | 6 | 6 | 10 |
| Euskal sinboloak (ikurriña, mitologia...) | 7 | 7 | 7 | 6 | 8 | 7 | 9 | 9 | 6 | 5 | 7 | 8 | 7 |
| Kantua | 6 | 3 | 3 | 39 | 6 | 6 | 5 | 5 | 7 | 9 | 6 | 3 | 8 |
| Ahozko literatura (bertsolaritza, ipuin kontaketa) | 6 | 7 | 3 | 3 | 5 | 7 | 7 | 6 | 8 | 3 | 3 | 6 | 13 |
| Arkitektura, monumentuak | 3 | 2 | 2 | 10 | 3 | 3 | 1 | 4 | 4 | 3 | 3 | 4 | 2 |
| Antzerkia euskaraz, pastorala, maskarada | 2 | 2 | 2 | 4 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 1 | 3 |
| Zinea euskaraz | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 |
| Arte plastikoak | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| Bestelakoak | 9 | 9 | 13 | 7 | 11 | 7 | 8 | 13 | 8 | 7 | 9 | 12 | 8 |
| Ez dut axolarik euskal kulturaz | 1 | 0 | 2 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| Ed/Ee | 3 | 3 | 5 | 2 | 3 | 4 | 2 | 1 | 3 | 7 | 5 | 1 | 1 |

* Batura ez da 100, hiru elementu aipatzeko aukera zegoelako.

**EUSKAL IDENTITATEA ETA EUSKAL KULTURA:**

**Kontuan izan!! Datuak 2006koak direla! (Analisia egiterakoan aipatu beharrekoa)**

EUSKAL KULTURARENTZAT KULTURA GLOBALIZATUA ZER DA?

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Traba handia + Nolabaiteko traba | 26 | 29 | 24 | 18 | 31 | 23 | 33 | 31 | 25 | 16 | 20 | 35 | 34 |
| Ez du eraginik | 17 | 15 | 19 | 30 | 18 | 17 | 16 | 18 | 18 | 16 | 21 | 13 | 13 |
| Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia | 26 | 28 | 18 | 34 | 27 | 25 | 23 | 32 | 28 | 21 | 26 | 27 | 25 |
| Ed/Ee | 30 | 28 | 39 | 19 | 25 | 35 | 28 | 20 | 29 | 47 | 33 | 25 | 27 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/ frantsesa | Gehienbat espainiarra/ frantsesa | Bestelakoak |
| Traba handia + Nolabaiteko traba | 18 | 29 | 30 | 19 | 47 | 35 | 9 | 21 | 16 | 27 |
| Ez du eraginik | 21 | 17 | 15 | 21 | 13 | 13 | 24 | 20 | 26 | 20 |
| Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia | 26 | 28 | 25 | 18 | 22 | 28 | 15 | 29 | 24 | 30 |
| Ed/Ee | 34 | 25 | 30 | 44 | 18 | 25 | 52 | 30 | 34 | 23 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

- Globalizazioa ez da gauza neutral bat; beraz, alde txarrak zian ditzake funtzionamendu neoliberala duelako. Adibidez, Durangoko Azokak ezingo du Disneyrekin konpetitu.
- Galdeketan %30ak ez du erantzun; beraz, *galderak ez du baliorik izango.*

KULTURA GLOBALIZATUAREN TZA ZER DA EUSKAL KULTURA?

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Traba handia+ Nolabaiteko traba | 5 | 5 | 6 | 4 | 7 | 5 | 7 | 8 | 4 | 3 | 4 | 8 | 7 |
| Ez du eraginik | 30 | 29 | 27 | 43 | 33 | 27 | 30 | 32 | 32 | 24 | 31 | 31 | 28 |
| Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia | 35 | 38 | 28 | 33 | 38 | 34 | 36 | 41 | 36 | 26 | 32 | 39 | 40 |
| Ed/Ee | 29 | 27 | 39 | 19 | 23 | 35 | 27 | 19 | 28 | 47 | 33 | 22 | 25 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | Gehienbat espainiarra/frantsesa | Bestelakoak |
| Traba handia+ Nolabaiteko traba | 3 | 7 | 7 | 7 | 11 | 7 | 3 | 3 | 4 | 5 |
| Ez du eraginik | 33 | 31 | 28 | 27 | 29 | 28 | 26 | 30 | 39 | 33 |
| Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia | 30 | 38 | 37 | 23 | 42 | 40 | 19 | 39 | 24 | 38 |
| Ed/Ee | 34 | 24 | 29 | 44 | 18 | 24 | 53 | 28 | 33 | 24 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

- Gai honetan sakontzeko galdera ez dago ondo planteatuta

**KULTUR PRAKTIKAK:**

HIZKUNTZA ERABILERA KULTUR JARDUERETAN:

| Hizkuntza bakoitzaren %, jarduera egin den aldi guztiekiko | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ε 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| **ZINEMA** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 94 | 94 | 98 | 88 | 94 | 94 | 96 | 93 | 92 | 94 | 98 | 93 | 91 |
| Nagusiki euskaraz | 2 | 2 | 1 | 2 | 1 | 3 | 1 | 2 | 4 | 2 | 0 | 4 | 2 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 4 | 4 | 1 | 10 | 4 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 2 | 3 | 6 |
| **KONTZERTUAK** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 51 | 49 | 67 | 34 | 48 | 56 | 48 | 56 | 52 | 58 | 65 | 50 | 40 |
| Nagusiki euskaraz | 24 | 26 | 16 | 24 | 25 | 22 | 31 | 18 | 12 | 12 | 7 | 17 | 43 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 25 | 25 | 17 | 42 | 26 | 22 | 21 | 26 | 36 | 30 | 28 | 33 | 16 |
| **MUSEO EDO ERAKUSKETAK** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 44 | 35 | 71 | 55 | 45 | 42 | 45 | 38 | 48 | 47 | 52 | 31 | 37 |
| Nagusiki euskaraz | 4 | 4 | 1 | 7 | 5 | 2 | 2 | 5 | 4 | 4 | 2 | 1 | 10 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 53 | 60 | 28 | 38 | 50 | 55 | 53 | 57 | 48 | 49 | 46 | 68 | 53 |
| **EUSKAL DANTZAK** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 9 | 5 | 30 | 20 | 10 | 9 | 9 | 6 | 13 | 8 | 15 | 3 | 5 |
| Nagusiki euskaraz | 77 | 86 | 41 | 55 | 74 | 79 | 75 | 85 | 71 | 75 | 69 | 84 | 84 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 14 | 10 | 29 | 25 | 16 | 12 | 16 | 9 | 16 | 16 | 16 | 13 | 11 |
| **MONUMENTUAK** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 52 | 54 | 45 | 49 | 53 | 51 | 43 | 60 | 60 | 27 | 58 | 43 | 47 |
| Nagusiki euskaraz | 3 | 2 | 4 | 6 | 3 | 2 | 2 | 4 | 2 | 1 | 2 | 3 | 3 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 45 | 44 | 51 | 46 | 43 | 47 | 55 | 36 | 38 | 72 | 39 | 54 | 49 |
| **ANTZERKIA** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 86 | 85 | 92 | 81 | 89 | 84 | 87 | 83 | 86 | 93 | 98 | 81 | 68 |
| Nagusiki euskaraz | 11 | 14 | 5 | 10 | 9 | 13 | 12 | 15 | 12 | 0 | 1 | 14 | 30 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 2 | 1 | 3 | 10 | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 7 | 1 | 6 | 2 |
| **HITZALDIAK** | | | | | | | | | | | | | |
| Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez | 82 | 78 | 98 | 77 | 76 | 87 | 78 | 80 | 89 | 75 | 93 | 86 | 59 |
| Nagusiki euskaraz | 6 | 7 | 1 | 0 | 6 | 6 | 8 | 3 | 7 | 5 | 0 | 0 | 21 |
| Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez | 12 | 15 | 1 | 23 | 18 | 7 | 14 | 17 | 4 | 19 | 7 | 14 | 21 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

* Taulak jasotzen duen informazioa zera da: herritar guztien artean jarduera bakoitza egin den aldi guztietatik, ehuneko zenbat izan diren hizkuntza bakoitzean.

Hizkuntzarik erabiltzen ez duten jardueretan (dantza ikuskizunetan edo ahozko azalpenik gabeko monumentuen bisitetan adibidez), aurkezpenaren eta seinaletikaren hizkuntza erabilera hartu da kontuan.

- Kultur jarduera gehienetan, euskal kulturan, euskaraz kontsumitzen dira gauza gehienak.
- Baina euskal kultura erdalduna da nagusiki

ZENBATETAN IKUSI DUZU TELEBISTA EUSKARAZ?

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Egunero | 22 | 26 | 14 | 13 | 23 | 22 | 25 | 24 | 20 | 20 | 6 | 20 | 54 |
| Astean behin edo gehiagotan | 21 | 24 | 13 | 15 | 23 | 18 | 23 | 21 | 19 | 20 | 15 | 25 | 27 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 25 | 25 | 24 | 21 | 26 | 24 | 23 | 24 | 27 | 25 | 30 | 29 | 13 |
| Inoiz ez | 32 | 25 | 49 | 51 | 28 | 36 | 29 | 31 | 33 | 36 | 49 | 25 | 6 |
| Ed/Ee | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

- Euskal Herrian badagp zati garrantzitsu bat euskarazko telebista ezagutzen ez duena.
- Aipatu beharra dago badaudela lekuak euskal telebista mutu jarri eta irrati gazteleraz entzuten duena.

**EUSKERARI BURUZKO DATUAK:** (EUSKO IKASKUNTZA ETA VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA)

Euskararen egoera aztertzerako garaian, kontuan zian, gaztelania eta frantsesa hizkuntza inperialista eta globalizatuak direla.

EUSKERAREN ULERMENA:

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 |
| Batere ez+Hitz batzuk soilik | **46** | 37 | 73 | 59 | 45 | 47 | 27 | 42 | 53 | 62 |
| Pixka bat | **20** | 24 | 12 | 10 | 21 | 20 | 25 | 21 | 20 | 14 |
| Aski ongi+ Oso ongi | **34** | 40 | 16 | 31 | 35 | 34 | 49 | 37 | 28 | 23 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/ frantsesa | Gehienbat espainiarra/ frantsesa | Bestelakoak |
| Batere ez+Hitz batzuk soilik | 80 | 39 | 31 | 87 | 33 | 17 | 95 | 52 | 83 | 68 |
| Pixka bat | 14 | 30 | 18 | 8 | 27 | 25 | 3 | 24 | 9 | 17 |
| Aski ongi+ Oso ongi | 6 | 31 | 51 | 4 | 40 | 57 | 2 | 24 | 8 | 15 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Egun euskararen muina EAEn dago batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian.

- Adinari dagokionez, D eredua dela eta gazte gehiagok hitz egiten du euskaraz. Gainera, adin taldeek erabat eragiten dute euskararen erabilera eta ezagutzan; hemen aipatu Frankismoak

helduenengan eragina izan duela. Adibidez, amamak euskara soilik zekien eta gazteleraz ikastera behartuta egon zen. Beraz, urte batzuren ondoren amama erderaz hitz egitera ohitu zen, eta euskara galtzen joan zen nahiz eta sekula ez ahaztu.

- Generoari dagokionez, generoen artean ez dago desberdintasunik, aipatu eskolan neskak gehiago direla euskaraz hitz egiten dutenak (salbuespenak salbuespen)

HITZ EGITEKO GAITASUNA:

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 |
| Batere ez+Hitz batzuk soilik | **53** | 44 | 77 | 65 | 53 | 53 | 33 | 48 | 62 | 69 |
| Pixka bat | **18** | 22 | 10 | 8 | 18 | 18 | 25 | 22 | 15 | 9 |
| Aski ongi+ Oso ongi | **29** | 34 | 13 | 27 | 30 | 29 | 42 | 29 | 24 | 23 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Gazteek euskaraz hitz egiteko gaitasun handiagoa dute helduek baino. Gazte gehienak hemen jaio ea ikasi dute. Helduenek, aldiz, ezin dute euskaraz horrenbeste egin, asko etorkinak direlako, eta beste batzuei Frankismoan inposatutakoak kalte egin zielako.

Etorkinak direla diogunean ez gara atzerritarrez ari. Etorkin asko eta asko Espainiako beste lurralde batzuetatik hona lanera etorritakoak dira, zeinak beren familiak hemen eraiki dituzten, eta ondorengoak euskaldunak diren.

LEHENENGO HIZKUNTZA 3 URTE BETE ARTE:

| | GUZTIRA | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | EUSKARAREN EZAGUTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafarroa | Iparraldea | Gizona | Emakumea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 | Ez | Pixka bat | Bai |
| Euskara | **19** | 21 | 6 | 23 | 19 | 19 | 20 | 15 | 19 | 23 | 1 | 7 | 57 |
| Gaztelania/frantsesa | **74** | 72 | 89 | 63 | 74 | 74 | 71 | 77 | 77 | 71 | 93 | 86 | 33 |
| Biak | **4** | 4 | 3 | 5 | 4 | 4 | 7 | 4 | 2 | 2 | 1 | 5 | 8 |
| Beste bat | **3** | 3 | 2 | 9 | 3 | 3 | 2 | 4 | 3 | 4 | 5 | 1 | 1 |
| Ed/Ee | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | JATORRIA | | | NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkina | Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak | Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai | Gehienbat nafarra | Euskal herritarra-nafarra | Gehienbat euskal herritarra | Nafar-espainiarra | Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa | Gehienbat espainiarra/frantsesa | Bestelakoak |
| Euskara | 1 | 5 | 36 | 2 | 16 | 35 | 1 | 9 | 4 | 4 |
| Gaztelania/frantsesa | 88 | 90 | 58 | 95 | 78 | 58 | 98 | 83 | 91 | 77 |
| Biak | 1 | 4 | 5 | 2 | 5 | 6 | 0 | 3 | 1 | 2 |
| Beste bat | 11 | 0 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 | 17 |
| Ed/Ee | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Errealitatearen arabera asko aldatuko dira datuak. Adinari dagokionez, gehiago dira adinekak euskara ama-hizkuntza dutenak. Gazteek eskoletan/ikastoletan ikusiko dute euskaraz.

EAEko eta Iparraldeko datuak oso ezberdinak dira, gainera esan kontrakoak ere badirela. Beraz, hezkuntza sistemaren eragina erabatekoa izan da euskararen ezagutzan eta erabileran. EAEn eman den arren, Iparraldean ere aurrerapausoak ematen ari direla.

HOBEREN ERABILTZEN DUZUN HIZKUNTZA (SOILIK EUSKARA ONDO DAKITENEI GALDETUTA):

| | GUZ-TI-RA* | LURRALDEA | | | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | | LEHEN HIZKUNTZA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EAE | Nafa-rroa | Ipa-rraldea | Gizo-na | Emaku-mea | 16-29 | 30-45 | 46-64 | ≥ 65 | Eus-ka-ra | Gazte-lania/frantsesa | Biak | Bes-te bat |
| Euskaraz | **23** | 25 | 14 | 13 | 22 | 23 | 16 | 13 | 33 | 42 | 38 | 2 | 8 | 5 |
| Gaztelaniaz/frantsesez | **44** | 44 | 43 | 46 | 47 | 42 | 49 | 54 | 36 | 28 | 24 | 79 | 45 | 63 |
| Bietan berdin | **32** | 31 | 42 | 38 | 30 | 35 | 34 | 33 | 29 | 29 | 38 | 17 | 47 | 21 |
| Beste hizkuntza batean | **0** | 0 | 0 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 11 |
| Ed/Ee | **0** | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| (Ehuneko bertikalak) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

- Euskaldunen %80ak gazteleraz hobeto hitz egiten du euskaraz baino.
- Aipatu %29a dela soilik euskara ondo dakiela aipatzen duena
- Gero eta helduagoa den pertsonak euskara hobe hitz egingo du gazte batek baino. Azken batean euskara ikasteko moduak aldatu egin direlako; hau da, jende helduak etxean ikasitako euskara hitz egingo du, eta gazteek, berriz, etxean ikasitako hori eskolatara birmoldatzen dute. Azken honek kasu batzuetan etxeko euskararen galera dakar. Hots, gazte askok eskolan hastean beren euskara hitz egiteko maila jaisten dute.

# 4. gaia:

# DEMOGRAFIA ETA MIGRAZIOAK

## DEMOGRAFIA

### ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK

Hasi aurretik, beharrezkoa da gai osoan zehar jorratuko ditugun adierazle demografikoei buruz oinarri batzuk aipatzea.

**Jaiotza eta ugalkortasuna:**

Hauen baitan jaiotza adierazleak eta ugalkortasun adierazleak bereizten dira. Lehenengoek, biztanleria batean izandako jaiotzei egiten diete erreferentzia. Bigarrenek, ordea, jaiotza horiek emakume ugalkorren biztanleriarekin harremanetan lantzen dituzte.

- ***Jaiotza tasa***:

Honekin neurtzen da jaiotza kopuru totala, lurralde jakin batean, urtebetean (t), 1.000 biztanleko.

$$\text{Jaiotza tasa}^{t} = \frac{Jaiotza\ kopurua^{t}}{Biztanleria\ totala^{t}} \times 1.000$$

- ***Jaiotzaren maskulinitate ratioa***:

Honek erreferentzia egiten dio mutilen jaiotza totalari, nesken 100 jaiotzako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Maskulinitate ratioa}^{t} = \frac{mutilen\ jaiotza\ kopurua^{t}}{Nesken\ jaiotza\ kopurua^{t}} \times 100$$

- ***Ugalkortasun tasa:***

Jaiotza kopuru totala lurralde jakin batean, urtebetean (t), ugalkortasun adinean (15-49 urte) dauden 1.000 emakumeko.

$$\text{Ugalkortasun tasa}^{t} = \frac{Jaiotzak\ (ama\ ugalkor)^{t}}{Ugalkor\ diren\ emakume\ kopurua^{t}} \times 1.000$$

- ***Amaren adinaren araberako ugalkortasun tasa:***

Adin jakin bateko amek izandako haur kopuru totala da, lurralde jakin batean, urtebetean (t), esandako adineko 1.000 emakumeko.

$$\text{Ugalkortasun tasa}_{X}^{t} = \frac{Jaiotza\ kopurua^{t}_{X}}{Biztanleria\ totala^{t}_{X}} \times 1.000$$

X = adina (15-49, ugalkor)

- ***Amatasunaren bataz besteko adina***

Honakoak erreferentzia egiten dio emakume batek haren seme-alabak izateko bataz besteko adinari, lurralde jakin batean. Kalkulatzeko, emakumezkok seme-alabak izateko adinaren media baliatzen dira.

$$\text{Jaiotza tasa}^t = \frac{Jaiotza\ kopurua^t}{Biztanleria\ totala^t} \times 1.000$$

**Hilkortasuna:**

- ***Hilkortasun tasa:***

Honekin neurtzen da heriotza kopuru totala, lurralde jakin batean, urtebetean (t), 1.000 biztanleko.

$$\text{Heriotza tasa}^t = \frac{Heriotza\ kopurua^t}{Biztanleria\ totala^t} \times 1.000$$

- ***Heriotza tasa, sexuaren arabera***:

Honekin neurtzen da sexu bateko biztanleriaren heriotza kopuru totala, lurralde jakin batean, urtebetean (t), 1.000 biztanleko.

$$\text{Heriotza tasa}^t{}_S = \frac{Heriotza\ kopurua^t{}_S}{Biztanleria\ totala^t{}_S} \times 1.000$$

S = sexua

- ***Heriotza tasa, adinaren arabera***:

Honekin neurtzen da adin jakin bateko biztanleriaren heriotza kopuru totala, lurralde jakin batean, urtebetean (t), 1.000 biztanleko.

$$\text{Heriotza tasa}^t{}_X = \frac{Heriotza\ kopurua^t{}_X}{Biztanleria\ totala^t{}_X} \times 1.000$$

X = adina

- ***Jaiotzerakoan bizi itxaropena***

Se define como el número medio de años que vivirían los componentes de una generación de individuos sometidos en cada edad al patrón de mortalidad observada sobre las personas de un determinado ámbito a lo largo del año t.

- ***Heriotzaren maskulinitate ratioa:***

Honek erreferentzia egiten dio mutilen heriotza totalari, nesken 100 heriotzeko. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Maskulinitate ratioa}^t = \frac{mutilen\ heriotza\ kopurua^t}{Nesken\ heriotza\ kopurua^t} \times 100$$

- ***Haurren hilkortasun tasa:***

Urtebete baino gutxiago duten haurren heriotza kopuru totala, lurralde batean, urtebetean (t), urte horretan bizirik jaiotako 1.000 haurreko.

$$\text{Haurren hilkortasun tasa}^{t} = \frac{Urtebete\ baino\ gutxiagoko\ haurren\ heriotza\ kopurua^{t}}{Bizirik\ jaiotako\ haurren\ kopurua^{t}} \times 1.000$$

- ***Haurren hilkortasun neonatal tasa:***

Honakoa 28 egun baino gutxiagorekin hildako haurren eta bizirik jaiotakoen arteko erlazio gisa definitzen da. 0 eta 27 egun bizi izan dituen hildako haur kopurua kalkulatzen da, lurralde batean, urtebetean (t), bizirik jaiotako 1.000 haurreko.

$$\text{Hilkortasun neonatal tasa}^{t} = \frac{28\ egun\ baino\ gutxiagoko\ haurren\ heriotza\ kopurua^{t}}{Bizirik\ jaiotako\ haurren\ kopurua^{t}} \times 1.000$$

- ***Haurren hilkortasun neonatal goiztiar tasa:***

Aurrekoaren berbera da, ordea, 7 egun baino gutxiagorekin hildako (<7) haurrak hartzen dira aintzat (0 eta 6 egun bitartekoak).

- ***Haurren hilkortasun neonatal berantiarra tasa:***

Aurrekoaren berbera da, ordea, 7 eta 28 egun bitarteko denborarekin hildako haurrak hartzen dira aintzat.

- ***Haurren hilkortasun postneonatal tasa:***

Harremantzen dira 28 egun bete dituzten baina urtebete baino gutxiagorekin hildako haurren kopurua, urtebetean bizirik jaiotako haur kopuruarekin.

- ***Haurren hilkortasun perinatal tasa:***

Aintzat hartzen direnak dira heriotza fetalak (jaio aurretikakoak) zein 7 egun baino gutxiagorekin hildakoak.

**Ezkontzak:**

- ***Ezkontza tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio ezkontza (matrimonio) kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Ezkontza tasa brutoa}^{t} = \frac{Ezkontza\ kopurua^{t}}{Biztanleria\ totala^{t}} \times 1000$$

- ***Ezkontza tasa***

Honek erreferentzia egiten dio ezkondutako pertsona kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Ezkontza tasa}^t = \frac{Ezkondutako\ pertsona\ kopurua^t}{Biztanleria\ totala^t} \text{ x } 1000$$

**Migrazioak:**

- ***Atzerritik datorren immigrazio tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio immigrante kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Immigrazio tasa brutoa}^t = \frac{Immigrazio\ kopurua^t}{Biztanleria\ totala^t} \text{ x } 1000$$

- ***Adinaren araberako atzerritik datorren immigrazio tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio X adin jakineko immigrante kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Adinaren araberako immigrazio tasa brutoa}^t = \frac{Immigrazio\ kopurua^t{}_X}{Biztanleria\ totala^t{}_X} \text{ x } 1000$$

- ***Atzerrira doan emigrazio tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio emigrante kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Emigrazio tasa brutoa}^t = \frac{Emigrazio\ kopurua^t}{Biztanleria\ totala^t} \text{ x } 1000$$

- ***Adinaren araberako atzerrira doan emigrazio tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio X adin jakineko emigrante kopuru totalari, 1000 pertsonako. Lurralde jakin batean, urtebetean (t).

$$\text{Adinaren araberako emigrazio tasa brutoa}^t = \frac{Emigrazio\ kopurua^t{}_X}{Biztanleria\ totala^t{}_X} \text{ x } 1000$$

- ***Atzerriarekin migrazio tasa brutoa***

Honek erreferentzia egiten dio migrazio kopuru totalari (immigrazioak eta emigrazioak barne), urtebetean (t), lurralde jakin batean. 1000 biztanleko.

$$\frac{Immigrazio\ kop^t + \text{Emigrazio kop}^t}{Biztanleria\ totala^t} \text{ x } 1000$$

- ***Atzerriarekin migrazio tasa netoa***

Honek erreferentzia egiten dio migrazio kopuru netoari (immigrazioak - emigrazioak), urtebetean (t), lurralde jakin batean. 1000 biztanleko.

$$\frac{Immigrazio\ kop^{t} - \text{Emigrazio kop}^{t}}{Biztanleria\ totala^{t}} \text{ x } 1000$$

Hots,

Migrazio tasa netoa = Immigrazio tasa brutoa – Emigrazio tasa brutoa

Aintzat hartzekoak:

**Saldo begetatiboa: Jaiotza tasa – Heriotza tasa**

**Migrazio saldoa: Immigrazioak – Emigrazioak**

**Saldo netoa: Saldo begetatiboa + migrazio saldoa**

**Espainiar errealitate demografikoa ulertzeko gakoak:**

- 1918: gripe espainiarra, heriotza tasak gora
- 1936: Gerra Zibila, heriotza tasak gora eta jaiotza tasak behera
- Mendean zehar: heriotza tasak joera beherakorra, oro har, higiene eta osasun hobekuntzengatik
- 1960-1975, gerraostea: Baby Boom, jaiotza tasak gora
- Azken urteotan: saldo begetatiboa negatiboa da; ordea, saldo netoa positiboa (migrazio saldoa dela eta).

## Demografiaren bilakaera: EAE

**Fase demografikoen bilakaera XX eta XXI.mendeetan:**

- 1900-1940: Hazkunde motela. EAEn, 1900 urtean, 600.596 biztanle
- 1940-1970: Populazioa bikoiztu, inmigrazioa eta jaiotze tasa altuak (baby boom)
- 1970-1981: Populazioa hazi, inmigrazioa moteldu baina jaiotza tasak altu mantendu (baby boomaren jarraipena)
- 1981-2000: Populazioa motel jaitsi. Hazkunde natural negatiboa
- 2000-2018: Populazioa gutxi handitu. Gehien bat inmigrazioagatik, baina jaiotzak ere handitu ziren.

**Aberastasuna:**

- BPG, *Barne Produktu Gordina*: lurralde batek sortzen duen aberastasuna. Lurralde baten aberastasuna neurtzeko baliatuko dugu BPGa.

- *BPG Per Capita edo errenta Per Capita*: honakoa baliatzea interesgarria da; hots, BPG/Biztanleria neurtzea. Izan ere BPG logikoa da herrialde handiagoek handiagoa izatea, eta adierazle honek, hala, biztanle bakoitzeko dagoen aberastasunari egiten dio erreferentzia.

- *Gini indizea:* honek aberastasuna nola banatuta dagoen neurtuko du; ordea, lurraldea aberatsa den ala ez esan gabe. Barne ezberdintasunak neurtzeko baliagarria da (ez zein aberatsa den, denak pobre badira ongi ateratzen baita). Ongizate Estatua ahula den eremuetan baxua izango da. 0 eta 100 bitarte neurtzen da: 0ak ezberdintasun ezari egiten dio erreferentzia, eta 100ak, ezberdintasunari (aberastasun guztia pertsona bakarrak du).

- *Giza garapen indizea (Indice de desarrolo humano)*: adierazle honetan aldagai gehiago sartzen dira, nolabait esatearren, osoago edo konpletoagoa da. Hots, indize sitetiko bat da, errenta, aberastasuna, osasun politikak, segurtasuna eta abar barnebiltzen dituena. Oro har, ongizatea bermatzen duten elementu ugari hartzen da aintzat, elementu ekonomikoetatik haratago.

  *Adibidea:* Luxemburgo.
  Herrialde txikia denez, BPGa nahiko txikia du. Ordea, BPG Per Capita oso altua dauka. Giza Garapenerako Indizea ere altua du. Ordea, baita Gini Indizea ere.

**GRAFIKOEN JORRAKETA:**

JAIOTZA ETA HILKORTASUN TASA ETA POPULAZIOAREN BILAKAERA. EAE (1861 – 2006)




Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Oro har, jaiotza eta heriotza tasen joera beherakorra dela esan dezakegu. Ordea, jaiotza tasa heriotza tasa baino handiagoa denez, biztanleriak gora egingo du.

Interesgarria da grafikoan nabarmentzen diren pikoak aztertzea.

- Heriotza tasa 1916 inguruan: gripe espainiarraren ondorioz heriotza tasak gora egin zuen
- Heriotza tasa 1936 inguruan: Gerra Zibilaren ondorioz, heriotza tasak gora egin zuen.
- Jaiotza tasa 1936 inguruan: Gerra Zibilean gizonak frentean zeudenez, jaiotza tasak behera egin zuen.
- Biztanleria 1936 inguruan: Antzematen da biztanlerian beherakada bat, azken bi faktoreen ondorio gisa uler dezakeguna.
- Jaiotza tasa 1960-1975 artean: Baby boom izenez ezaguna den fenomenoa, jaiotza tasek gora egin zuten berriro.
- Hilkortasun tasaren beherakada orokorra medikuntzaren aurrerapenekin erlazionatu genezake.
- 1990 urte ingurutik, handiagoa da heriotza tasa jaiotza tasa baino. Honen arabera, saldo begetatiboa negatiboa da. Ordea, ikus daitekeen bezala, biztanleria ez da nabarmen urritu. Honakoa, immigrazioaren ondorioz izan da.

ADIN PIRAMIDEA. EAE




Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Aipatu beharra dago aurreko piramideari erreparatuta konturatuko garela nola 1991tik 2010era jaiotzek gora egin duten, eta lehen sortutako hutsune hori berriro ere errekuperatzen ari den.Hala ere, aipatu ez direla 'baby boom' garaian eman ziren fenomenoak emango, baina honek ere izango du ondorengo jaiotzetan zerikusia, azken batean generazio horretako jende gehiago dagoelako.Jaiotza tasen beherakadaren beste arrazoietako bat 2008ko krisia izan daiteke, zeinetan egoera eta baldintza ekonomikoek behera egin zuten, eta honek jaiotza tasak behera egitea ekarri zuen.

EAEko etorkin kopurua %9,4koa da

UGALKORTASUN TASA AMAREN ADINAREN ARABERA




**Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.**
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Ondorio orokor gisa, esan genezake haurrak izateko adina atzeratu egin dela. 1991 arte haur gehien izaten zituzten emakumeak 25 eta 29 urte bitarte zituzten, ondoren 20 eta 24 urte bitartekoak eta, jarraian, 30-34 bitartekoak.

Gaur egun, ordea, 30 eta 34 urte bitartekoak dira haur gehien izaten dituztenak, eta, ondoren, 35 eta 39 urte bitartekoak. Lehen gailentzen zen 25-29 adin tartea hirugarrena da gaur egun.

Honakoa arazo gisa plantea liteke. Izan ere, haurrak hain berandu izateak ama bakoitzak haur bakarra izatearen probabilitatea areagotzen du; hots, lehen haurra 40 urterekin izanez gero, litekeena da bakarra izatea.

Honengan eragin nabarmena duten bi afera azpimarra ditzakegu: lan merkatua eta etxebizitza. Batetik, gaur egun kasik beharrezkoa da ikasketak luzatu eta 25 urtera arte ikasten aritzea. Horrek, bestalde, egonkortasun eza eta etxebizitza propioa izateko ezintasuna dakartza berarekin. Hots, bikotekidea izan arren, ohikoena da lan egonkorren bat izan arte etxe propiorik ez eskuratzea. Jakina denez, haurra izateko baldintza kasik determinantea da etxebizitza izatea.

BIZI ESPERANTZA EDO ITZAROPENA:

*Esperanza de vida (EV), esperanza de vida en buena salud (EVBS), esperanza de vida en mala salud (EVMS), y porcentaje de esperanza de vida que se espera vivir en buena salud (%EVBS) en la C.A. de Euskadi. 2004-2008*

7

***Bizi-itxaropena (BI), osasun onean bizitzeko itxaropena (OOBI), osasun txarrean bizitzeko itxaropena (OTBI), eta osasun onean bizitzea espero den bizi-itxaropenaren portzentajea (OOBI %) Euskal AEn. 2004-2008***

| | **BI** / EV | **OOBI** / EVBS | **OTBI** / EVMS | **OOBI %** / % EVBS |
|---|---|---|---|---|
| **Gizonak** / Hombres | 78 | 64,8 | 13,2 | 83,1 |
| **Emakumeak** / Mujeres | 85,2 | 67,5 | 17,7 | 79,2 |
| **Aldea** / Diferencia | 7,2 | 2,7 | 4,5 | -3,9 |

**Iturria: Martin, 2011**
Fuente: Martin, 2011

Taulan bi afera azpimarragarri ikus daitezke:

- Emakumeen bizi esperantza (85,2 urte) handiagoa da gizonezkoena baino (78 urte); hots, urte gehiago bizi gara emakumezkoak gizonezkoak baino.

- Ordea, osasun onean bizitzeko itxaropena, proportzioan, altuagoa dute gizonek (%83,1; 64,8 urte) emakumezkoek baino (%79,2; 67,5urte).

BIZI ESPERANTZA IKASKETA MAILAREN ARABERA




Datuek esaten digutenaren arabera, ikasketa mailak lotura zuzena du bizi itxaropenarekin. Izan ere, ikasketa maila altuagoa izateak lan baldintza hobeak dakartzala aurresan dezakegu, eta, zentzu berean, lan baldintza hobeek bizi itxaropena luzatzea dakarrela.

- Behe klaseetan, gainera, bizi itxaropena murriztea dakarren hainbat elementu nabarmentzen dira: alkoholaren kontsumo handiak.
- Adibide gisara, Glasgoweko auzorik txiroenean bizi esperantza auzorik aberatsenekoaren erdia da kasik. Pobreenean 45 urtekoa eta aberatsenean 80 urtekoa.

## EHKO DATU DEMOGRAFIKOAK: GAUR EGUNA

EUSKAL HERRIKO DATU DEMOGRAFIKOAK. 2015

| | | |
|---|---|---|
| BIZKAIA | 1.149.111 | 36,7 |
| GIPUZKOA | 716.834 | 22,9 |
| ARABA | 325.529 | 10,4 |
| **EAE** | **2.191.474** | **70,1** |
| **NAFARROA** | **640.476** | **20,5** |
| LAPURDI | 249.845 | 8,0 |
| NAFARROA BEHERA | 31.485 | 1,0 |
| ZUBEROA | 15.104 | 0,5 |
| **IPARRALDE** | **296.434** | **9,5** |
| **EUSKAL HERRIA** | **3.128.384** | **100,0** |

Sarrera gisara, aipagarria da Espainiar Estatuko km² guztien %53an, biztanleriaren %5a soilik bizi da. EAE, esan genezake, dentsitate handiko lurraldea dela. Honen baitan, Bizkaia da biztanle gehien (baita km²-ko) dituen lurraldea (EH osoaren baitan).

- **Populazio dentsitatea (biztanle/ km²)**

| | |
|---|---|
| BIZKAIA | 516,3 |
| GIPUZKOA | 375,8 |
| ARABA | 100,6 |
| NAFARROA | 66,7 |
| LAPURDI | 289,4 |
| NAFARROA BEHERA | 23,8 |
| ZUBEROA | 18,5 |
| **EUSKAL HERRIA** | **149,5** |

- **Bataz besteko adina EHn**

| | |
|---|---|
| BIZKAIA | 44,6 |
| GIPUZKOA | 43,6 |
| ARABA | 42,9 |
| NAFARROA | 42,1 |
| LAPURDI | 43,7 |
| NAFARROA BEHERA | 43,3 |
| ZUBEROA | 47 |

- **Iparraldearen kasua:**

Iparraldearen kasuan, aipagarria da biztanleriaren %58,2 a Lapurdin bizi dela, %27,5a Zuberoan eta soilik %14,3a Behe Nafarroan (2013ko datuen arabera).




Horrez gain, 1999 eta 2009 artean izandako gazteen iraute tasaren bilakaera ere azpimarragarria da (ikus mapa). Antzematen da Zuberoa eta Behe Nafarroatik gazteek alde egiten dutela. Batzuek Lapurdira, bestetzuek Frantziara (edo Hego EHra).

**Biztanleriaren adin egitura, biztanleria piramidea:**




Argi ikusten den bezala, biztanleriaren piramidea oso ezberdina da EHn edo Munduan. Izan ere, EH lurralde garatu bezala ulertu behar dugu. Lurralde garatu hauetan, joera bat nabarmentzen ari da: biztanleria gero eta helduagoa da, eta biztanleria piramidearen forma aldatu egin da. Ordea, mundu mailan badira garatuta ez dauden herrialdeak eta, oro har, biztanleria piramidearen ohiko formari eusten diotenak.

- **Biztanleriaren hazkunde begetatiboa, EH eta munduko beste eremuak (2001-2013)**

| | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2009 | 2011 | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKAL HERRIA | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,0 |
| Frantzia | 0,4 | 0,4 | 0,4 | 0,5 | 0,4 | 0,4 | 0,4 |
| Alemania | -0,1 | -0,2 | -0,2 | -0,2 | -0,2 | -0,2 | -0,3 |
| EB-28 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,0 |
| Herrialde garatuak | 0,0 | -0,1 | -0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,1 |
| BRICS | 1,0 | 1,0 | 0,9 | 0,9 | 0,9 | 0,8 | 0,8 |
| Mundua | 1,2 | 1,2 | 1,2 | 1,1 | 1,1 | 1,1 | 1,1 |

Berezko hazkundea: Jaiotza eta heriotzen arteko biztanleria osoarekiko hazkunde-tasa, migrazioak aintzat hartu gabe.
Iturriak: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, ELGA-OECD eta US Census Bureau.

Hemen ere antzematen da aurretiaz aipatutakoa.

- Hots: BRICS deritze Brasil, Rusia, India China eta Sudafrikari. Honakoak dira *las cinco economías nacionales emergentes más importantes del mundo.*

**Zahartze tasa:**

Zahartze tasa deritzo 65 urtetik gorako pertsona kopuruaren portzentajeari, 16 urtetik beherako gazteekiko. Hau da:

$$\text{Zahartze-tasa} = \frac{Populazioa\ 65+}{Populazioa\ 0-15} \times 100$$

- **Zahartze tasa, 2014**




Berezko hazkundea: Jaiotza eta heriotzen arteko biztanleria osoarekiko hazkunde-tasa, migrazioak aintzat hartu gabe.
Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, ELGA-OECD eta US Census Bureau.

- **Biztanleriaren zahartze tasa, EH, 1999-2014**

| | 1999 | 2002 | 2005 | 2008 | 2011 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKAL HERRIA | 17,4 | 18,2 | 18,3 | 18,6 | 19,4 | 20,4 |
| Araba | 15,0 | 16,0 | 16,2 | 16,7 | 17,7 | 19,0 |
| Bizkaia | 17,3 | 18,6 | 18,9 | 19,3 | 20,1 | 21,3 |
| Gipuzkoa | 16,8 | 17,7 | 18,0 | 18,4 | 19,4 | 20,6 |
| Lapurdi | 20,4 | 20,4 | 20,4 | 21,6 | 21,9 | 21,9 |
| Nafarroa Beherea | 22,2 | 22,2 | 22,2 | 22,0 | 21,9 | 21,9 |
| Nafarroa Garaia | 18,1 | 18,0 | 17,5 | 17,3 | 17,6 | 18,6 |
| Zuberoa | 25,3 | 25,3 | 25,3 | 25,7 | 26,0 | 26,0 |
| UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERA | | | | | | |
| 0-500 | 25,3 | 25,5 | 24,9 | 23,9 | 23,5 | 23,7 |
| 501-1.000 | 22,7 | 22,8 | 21,9 | 21,4 | 21,2 | 21,4 |
| 1.001-5.000 | 19,5 | 19,7 | 18,9 | 18,5 | 18,5 | 19,1 |
| 5.001-10.000 | 16,3 | 16,8 | 16,5 | 16,7 | 17,1 | 17,8 |
| 10.001-25.000 | 15,0 | 15,9 | 16,1 | 16,5 | 17,4 | 18,7 |
| 25.001-50.000 | 17,3 | 18,5 | 19,0 | 20,1 | 21,2 | 22,3 |
| 50.000< | 17,5 | 18,5 | 18,7 | 19,2 | 20,1 | 21,5 |

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE. Ekoizpen propioa.

- **Zahartze tasak EHn eskualdearen arabera, 2014**



**Emakumeen presentzia:**

Nekazal eremu gehienetan, ohikoa da emakumezkoak baino gizonezko gehiago egotea. Eremu horietan arazo bat suertatzen da: haurrak izateko emakumezkoak behar ditugunez, ugalkortasun tasa edo jaiotza tasek beherakada bat izaten dute.

Hori dela eta, eremu horietan, *Caravanas de Mujeres* izeeko mugimenduak burutzen zituzten. Hots, bertakoak ez ziren emakumezkoak autobusetan sartu eta nekazal eremuetara garraiatzen zituzten, bertako gizonezkoak bikote gisa hartu eta ugaltzeko (udaletxearen antolakuntza eta diruarekin burutzen zen honakoa).

Hirietan, aurkara, emakumezkoak gehiago izaten dira gizonezkoak baino gehiago. Gainera, esan dugun bezala emakumezkoen bizi esperantza altuagoa denez, emakumeen populazioa helduagoa izaten da.

EMAKUMEEN PRESENTZIA (%), ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2014.

| | 15-24 | 25-34 | 35-44 | 45-54 | 55-64 | 65+ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **EUSKAL HERRIA** | 48,5 | 49,4 | 48,8 | 50,1 | 51,2 | 57,8 |
| Araba | 48,6 | 49,4 | 48,1 | 49,8 | 51,0 | 55,4 |
| Bizkaia | 48,6 | 49,3 | 49,3 | 50,7 | 51,8 | 58,5 |
| Gipuzkoa | 48,6 | 49,2 | 48,6 | 50,0 | 50,9 | 57,7 |
| Lapurdi | 47,3 | 50,0 | 50,8 | 52,0 | 53,4 | 61,0 |
| Nafarroa Beherea | 45,8 | 49,0 | 48,8 | 47,5 | 48,7 | 55,2 |
| Nafarroa Garaia | 48,9 | 49,3 | 48,1 | 48,9 | 49,8 | 56,5 |
| Zuberoa | 40,9 | 47,9 | 49,3 | 48,8 | 47,6 | 56,8 |
| UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERA | | | | | | |
| 0-500 | 45,3 | 46,8 | 45,4 | 44,9 | 43,5 | 51,8 |
| 501-1.000 | 48,3 | 47,3 | 46,7 | 45,6 | 45,3 | 52,7 |
| 1.001-5.000 | 47,7 | 48,4 | 47,5 | 47,6 | 47,8 | 55,5 |
| 5.001-10.000 | 48,1 | 49,3 | 48,7 | 49,2 | 49,3 | 56,5 |
| 10.001-25.000 | 48,8 | 49,6 | 48,8 | 50,1 | 51,2 | 57,1 |
| 25.001-50.000 | 48,3 | 48,6 | 49,1 | 51,0 | 52,9 | 59,2 |
| 50.000< | 49,0 | 50,0 | 49,6 | 51,5 | 53,0 | 59,2 |

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE. Ekoizpen propioa.

**Despopulazioa:**




Esan bezala, Espainiako lurraldearen %53an (erdia baino gehiago) soilik biztanleriaren %5a bizi da; hots, lurralde batzuetan populazioa oso-oso urria da. Mapa behatuta, ikus daiteke espainiar kostaldean arazorik ez badago ere, barrualdean despopulazioa arazo bilakatzen ari dela.

Nekaraz eremuetan eta zaharkitze tasa altuetako eremuetan da ohikoen lurraldearen despopulazioa.

EHri dagokionez, arazo hau ez da hain nabaria; dena den, badira demografia arazoak dituzten eskualde batzuk (Arazo demografikoak dituzten eskualdeak EHn, 2015):




- Lea artibai
- Baztanaldea
- Irunberrialdea
- Zangozerria
- Estellerriko Ekialdea
- Estellerriko mendebaldea
- Arabako Mendialdea
- Xiberoa herri alkargoa
- Erronkari-Zaraitzu

**Batez besteko adina munduan:**









# Lehen migrazioak EAEn

**LEHEN MIGRAZIOAK EAEn:**

- **Emigrazioa:**

Emigrazio fluxu nabarmenak izan ziren; hots, Euskaldun asko joan zen EHtik, bereziki, Latinoamerikara.

  - XIX eta XX.mendeetan zehar; baita Gerra Zibilean zehar ere.

- **Immigrazioa:**

Hasieran, immigrazio fluxu nagusiak Bizkaiak jaso zituen: hasieran Gipuzkoa eta inguruko probintzietatik jende asko bertaratu zen, industrializazioaren ondorioz.

  - Horren ondorioz, Bilboko biztanleria 17.649koa izatetik (1857) 83.306koa izatera (1900) igaro zen. Hots, bost aldiz biderkatu zen.
  - Era berean, Ezkerraldean, XIX.mende amaieran, 25.000 biztanle izatetik 230.000 izatera igaroko da.

**Bizkaian eta Bizkaitik kanpo jaiotako langileak herrika, 1887:**

| | Bizkaian jaiotako langileak | | Bizkaiatik kanpo jaiotako langileak | |
|---|---|---|---|---|
| | N | % | N | % |
| BILBO | 12.981 | 57,0 | 9.776 | 43,0 |
| BARAKALDO | 2.593 | 56,6 | 1.988 | 43,4 |
| PORTUGALETE | 894 | 57,5 | 662 | 42,5 |
| SANTURTZI | 1.514 | 51,4 | 1.429 | 48,6 |
| TRAPAGARAN | 892 | 26,0 | 2.543 | 74,0 |
| SESTAO | 1.902 | 48,9 | 1.988 | 51,1 |

Taulan ikus daitekeen bezala, bada, Bizkaira jende asko eta asko etorri zen lan egitera, industrializazioaren ondorioz. Horrekin, hainbat herritan, gehiago ziren Bizkaitik kanpo jaiotako langileak Bizkaian bertan jaiotakoak baino (Trapagaran eta Sestaoren adibideak).

- **Migrazio saldoak eta populazioaren bilakaera**

XIX.mendean, populazioaren bilakaera beherakorra izango da Araba eta Gipuzkoan, immigrazio fluxuak Bizkaira bideratu baitziren.

**Migrazio saldoak EAEn lurralde historikoen arabera, 1861-1893:**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|
| 1861-1870 | -8.302 | 7018 | -15.490 | -16.774 |
| 1886-1893 | -1819 | 22.665 | -1951 | 18.895 |

1861-1870 bitartean, aipatu bezala, Araba eta Gipuzkoak populazioaren bilakaera beherakorra izan zuten (migrazio saldoak negatiboak ziren). Ordea, Bizkaira dagoeneko jende gehiago heltzen zen joaten zena baino. EAEn, oro har, migrazio saldoak negatiboa izaten jarraitzen zuen.

1886-1893 bitartean, ordea, dagoeneko egoera aldatu egin zen. Araba eta Gipuzkoan migrazio saldoak negatiboa izaten jarraitzen bazuen ere, era apalago batean ziren negatibo. Bizkaiko saldoa, ordea, are positiboagoa bilakatu zen. Horrekin, EAEko migrazio saldoa positibo bilakatu zen.

**EAEko populazioaren bilakaera XX.mendean zehar:**

| | 1900 | 1940 | 1975 | 1995 | 2000 |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 601.975 | 907.768 | 2.043.850 | 2.151.070 | 2.106.188 |
| Espainiarrak | 596.488 | 905.346 | 2.038.254 | 2.134.946 | 2.073.527 |
| Atzerritarrak | 5.487 | 2.422 | 5.596 | 16.124 | 32.661 |



## GAURKO MIGRAZIOAK

Gaur egungo migrazioen egoera aztertzeari ekingo diogu atal honetan.

**Población total y de origen extrangero en España por Comunidades Autónomas (absolutos y %) 2018:**

| | 2018 | | | 1998 % pob. origen extranjero |
|---|---|---|---|---|
| | Total Población | Pob. de origen extranjero | % pob. origen extranjero | |
| **España** | 46.722.980 | 6.386.904 | 13,7 | 2,9 |
| Andalucía | 8.384.408 | 788.101 | 9,4 | 2,5 |
| Aragón | 1.308.728 | 167.858 | 12,8 | 1,4 |
| Asturias | 1.028.244 | 75.465 | 7,3 | 2,1 |
| Islas Baleares | 1.128.908 | 250.794 | 22,2 | 6,8 |
| Canarias | 2.127.685 | 395.033 | 18,6 | 5,3 |
| Cantabria | 580.229 | 49.111 | 8,5 | 1,7 |
| Castilla y León | 2.409.164 | 179.657 | 7,5 | 1,6 |
| Castilla - La Mancha | 2.026.807 | 198.081 | 9,8 | 1,0 |
| Cataluña | 7.600.065 | 1.380.590 | 18,2 | 3,2 |
| Com. Valenciana | 4.963.703 | 815.551 | 16,4 | 4,1 |
| Extremadura | 1.072.863 | 44.507 | 4,1 | 1,0 |
| Galicia | 2.701.743 | 221.963 | 8,2 | 3,4 |
| Madrid | 6.578.079 | 1.219.347 | 18,5 | 4,0 |
| Murcia | 1.478.509 | 226.621 | 15,3 | 2,4 |
| Navarra | 647.554 | 92.298 | 14,3 | 1,8 |
| **País Vasco** | 2.199.088 | 206.530 | 9,4 | 1,3 |
| La Rioja | 315.675 | 43.912 | 13,9 | 1,6 |
| Ceuta | 85.144 | 11.046 | 13,0 | 7,3 |
| Melilla | 86.384 | 20.439 | 23,7 | 15,1 |

Emaitzetan ikusten den bezalaxe, EAEn immigrazio kopurua baxuagoa da Espainiar estatuko beste hainbat lurraldetan baino. Zergatik, bada?

Aipatutako afera hertsiki lotuta dago lan merkatuaren egoerarekin. Izan ere, EAEko lan merkatuaren egiturak ez du etorkinentzat leku gehiegirik uzten: hots, erregulatuagoa dago, sindikatuak daude … Horrekin, beste hainbat erkidegotan (lan merkatu prekarioagoak dituztenetan) handiagoak dira etorkinek lana eskuratzeko dituzten aukerak, Valentzian (%16,4), adibidez.

Balear Irletan eta Kanariar Irletan ere etorkinen ehuneko nahikoa altua dutela ikus daiteke, %22,2 eta %18,6koa, hurrenez hurren. Izan ere, eremu hauetan, oso altua da erresidentzia-turismoa. Hots, migratzaile ekonomikoa eta erresidentzia-turismoa batzen dira bertan.

Etorkinak arrazoi ezberdinengatik datoz:

1) Lan merkatuarengatik, gure amonak zaintzera

2) Erresidentzia turismoa: bereziki Europa Iparraldetik datozen jubilatuek osatzen dute sektore hau. Dirua izan ohi dute, eta jubilatzera datoz. Oro har, Kanariar eta Balear irletara, klima ona dela medio.

Nafarroako kasuak EAEkoekin alderatuta, ikus dezakegu apur bat altuxeagoa dela etorkin proportzioa. Hots, Nafarroan %14,3a da etorkina, EAEn %9,4a den heinean. Honek lotura handia du Erribera inguruan dauden landa eremuetako nekazaritza lanarekin.




EAEren datuak aztertzerakoan, aipagarria da duela 20 urte, 1998an, etorkin oso gutxi zegoela bertan (%1,3a soilik). Nafarroaren kasuan ere, %1,8koa zen etorkin kopurua. Horrekin, azpimarratzekoa da Euskal Herrian etorkinen fenomenoa oso berria dela.

Horrez gain, beste hainbat datu: etorkinen %20a Madril eta Katalunian dago; ordea, gehiengoa espainiar kostaldean dagoela nahiko argi geratzen da.

**Población total y de origen extrangero en España por Provincias (absolutos y %) 2018:**

| | Total | Origen extranjero | % origen extr. |
|---|---|---|---|
| España | 46.722.980 | 6.386.904 | 13,7 |
| Melilla | 86.384 | 20.439 | 23,7 |
| Balears, Illes | 1.128.908 | 250.794 | 22,2 |
| Girona | 761.947 | 165.077 | 21,7 |
| Alicante/Alacant | 1.838.819 | 395.663 | 21,5 |
| Almería | 709.340 | 146.432 | 20,6 |
| Santa Cruz de Tenerife | 1.018.510 | 207.271 | 20,4 |
| Madrid, Comunidad de | 6.578.079 | 1.219.347 | 18,5 |
| Lleida | 432.866 | 79.579 | 18,4 |
| Málaga | 1.641.121 | 301.441 | 18,4 |
| Barcelona | 5.609.350 | 999.252 | 17,8 |
| Tarragona | 795.902 | 136.682 | 17,2 |
| Palmas, Las | 1.109.175 | 187.762 | 16,9 |
| Guadalajara | 254.308 | 39.109 | 15,4 |
| Murcia, Región de | 1.478.509 | 226.621 | 15,3 |
| Castellón/Castelló | 576.898 | 87.752 | 15,2 |
| Navarra, Comunidad Foral de | 647.554 | 92.298 | 14,3 |
| Rioja, La | 315.675 | 43.912 | 13,9 |
| Valencia/València | 2.547.986 | 332.136 | 13,0 |
| Zaragoza | 954.811 | 123.976 | 13,0 |
| Ceuta | 85.144 | 11.046 | 13,0 |
| Huesca | 219.345 | 28.438 | 13,0 |
| Segovia | 153.342 | 18.246 | 11,9 |
| Teruel | 134.572 | 15.444 | 11,5 |
| Álava | 328.868 | 37.381 | 11,4 |
| Soria | 88.600 | 10.003 | 11,3 |
| Ourense | 309.293 | 33.745 | 10,9 |

| | Total | Origen extranjero | % origen extr. |
|---|---|---|---|
| Toledo | 687.391 | 73.513 | 10,7 |
| Cuenca | 197.222 | 20.912 | 10,6 |
| Gipuzkoa | 720.592 | 68.509 | 9,5 |
| Burgos | 357.070 | 33.255 | 9,3 |
| Huelva | 519.932 | 48.282 | 9,3 |
| Bizkaia | 1.149.628 | 100.640 | 8,8 |
| Granada | 912.075 | 78.510 | 8,6 |
| Cantabria | 580.229 | 49.111 | 8,5 |
| Coruña, A | 1.119.351 | 89.435 | 8,0 |
| Albacete | 388.786 | 30.959 | 8,0 |
| Pontevedra | 941.772 | 74.987 | 8,0 |
| Ávila | 158.498 | 12.040 | 7,6 |
| Asturias, Principado de | 1.028.244 | 75.465 | 7,3 |
| Lugo | 331.327 | 23.796 | 7,2 |
| León | 463.746 | 32.025 | 6,9 |
| Valladolid | 519.851 | 35.073 | 6,7 |
| Ciudad Real | 499.100 | 33.588 | 6,7 |
| Salamanca | 331.473 | 21.342 | 6,4 |
| Palencia | 162.035 | 8.802 | 5,4 |
| Sevilla | 1.939.887 | 100.548 | 5,2 |
| Zamora | 174.549 | 8.871 | 5,1 |
| Cádiz | 1.238.714 | 62.863 | 5,1 |
| Cáceres | 396.487 | 18.537 | 4,7 |
| Badajoz | 676.376 | 25.970 | 3,8 |
| Córdoba | 785.240 | 29.233 | 3,7 |
| Jaén | 638.099 | 20.792 | 3,3 |

EAEko probintziei erreparatuz gero, Araba (%11,4) litzateke lehena eta Gipuzkoa (%9,5) eta Bizkaia (%8,8)lituzke atzetik. Honen arrazoia Arabarren ardo ekoizpenarekin (oro har, nekazaritzarekin) lotuta legoke.

Andaluziari erreparatuz gero, aipagarria da datu bitxiak edo oso aldakorrak ageri direla bertako probintzietan; Almeriak (%20,6) eta Malagak (%18,4) atzerritar kopuru nabarmena dute, eta Cordobak (%3,4) eta Jaenek (%3,3) oso baxua. Honen arrazoia, nekazaritza mota da, hau da, Almerian zein Malagan langile asko behar dira nekazaritza lan horietarako (negutegiak).

Bi kasu hauek aztertuta, bada, esan liteke nekazaritza sektoreak eragin nabarmena duela etorkinen kopuruan.

**Evolución de la población total y de origen extrangero en la CAE**

| | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Total | 2.098.628 | 2.100.441 | 2.098.596 | 2.101.478 | 2.108.281 | 2.112.204 | 2.115.279 | 2.124.846 | 2.133.648 | 2.141.860 | 2.157.112 |
| Origen extranjero | 26.334 | 29.023 | 35.143 | 43.823 | 55.868 | 67.529 | 78.206 | 94.028 | 108.094 | 122.196 | 142.484 |
| % origen extranjero | 1,3 | 1,4 | 1,7 | 2,1 | 2,6 | 3,2 | 3,7 | 4,4 | 5,1 | 5,7 | 6,6 |

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | Saldo 1998-2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Total | 2.172.175 | 2.178.339 | 2.184.606 | 2.193.093 | 2.191.682 | 2.188.985 | 2.189.257 | 2.189.534 | 2.194.158 | 2.199.088 | 100.460 |
| Origen extranjero | 159.637 | 167.382 | 175.039 | 183.772 | 183.283 | 181.717 | 184.197 | 188.596 | 196.589 | 206.530 | 180.196 |
| % origen extranjero | 7,3 | 7,7 | 8,0 | 8,4 | 8,4 | 8,3 | 8,4 | 8,6 | 9,0 | 9,4 | 8,1 |




Azken 20 urteotako datuak dira hauek. Biztanleria orokorrean 100.460ko hazkundea eman da; etorkinen biztanlerian, ordea, 180.196ko hazkundea. Hots, gehiago izan dira kanpotik etorritakoak Espainian jaiotakoak baino. Horrek esan nahi du, etorkinik ez izatekotan, 80.000 biztanle gutxiago izango ginatekeela (saldo begetatiboa negatiboa izan da?).

Etorkin kopuruari dagokionez, 2002 eta 2008 bitartean izan zen gorakada nabarmenena; ordea, 2008ko krisia medio, etorkin kopurua ez da kasik aldatu, eta 8,5 inguruan mantendu da krisia amaitu arte, bederen. Aipagarria da aspaldian etorri ziren etorkinek ez dutela jatorrizko herrialdera buelta egiten haien ondorengoak hemen jaioak izaten direlako. Esan bezala, krisiaren garai latzenak pasa ostean, Espainia berriro bilakatu da etorkinen helmuga: hots, etorkin kopurua hazten ari da berriro.

ADI!

Ezberdindu beharreko bi kontzeptu garrantzitsu daude. Gauza bat da atzerrian jaiotzea, eta bestea, zein nazionalitate izaten den.

Nazionalitatea lortzeko araudi bat dago Espainiar Estatuan. Horrekin, atzerritarrek, oro har 2 urteren buruan lotzen dute egoitza baimena. Horrekin, etorkinek 2 nazionalitateak mantentzen dituzte (Latinoamerikarrek bederen, ez guztiek).

Nazionalitate Espainiara lortzea oso garrantzitsua da atzerritarrentzat. Azken urteotan, Latinoamerikatik etorritakoak nagusiki, espainiar nazionalitatea lortu dute (aipatutako araudia dela eta). Latinoamerikarrek, gainera, bi nazionalitateak mantentzeko aukera izaten dute. Espainiar nazionalitatea lortzeak juridikoki eta legalki erabateko formalitatea eskuratzea ahalbidetzen diete etorkinei: ez dute paperen beharrik izaten eta *schengen pasaportea* eskuratzeko gaitasuna izaten dute (hots, Europan zehar mugitzeko eskubidea). Horren bidez, espainiar nazionalitatea izanda, nahi denean egin daitezke herrialdera sartu-irtenak. Honek garrantzia handia du; adibidez, krisi garaian, Latinoamerikar batzuk haien herrialdeetara itzuli direlako, eta orain egoera hobetu denean, berriro etorri direlako Espainiar estatura.

Schengen pasaportea:

Schengen zonan askatasunez mugitzeko eskubidea ematen duen pasaportea da, etorkinek Espainiar Nazionalitatea eskuratzean lortzen dutena. Horrekin, aske mugi daitezke hainbat herrialdetan zehar sartu-irtenak eginez. Era berean, haien jatorrizko herrira itzultzea ahalbidetzen zaie (bertako nazionalitatea mantentzekotan) eta baita berriro hona itzultzea ere.



**Evolución de la población de nacionalidad extranjera sobre la nacida en el extranjero en la CAE (%), 2008-2018**




Grafiko honetan Gorka colombiarra baldin bada eta colombiar nazionalitatea soilik baldin badu bietan egongo da baina jada 10 urte pasatu bada eta espainiar nazionalitatea goikoan soilik egongo da. Hots, bi lerroen artean kokatzen direnak dira dagoeneko Espainiar Nazionalitatea eskuratu dutenak.




Esan bezala, ezberdina da atzerrian jaioa izatea edo nazionalitate atzerritarra izatea. Izan ere, atzerritik datozenek Espainiar Nazionalitatea jaso dezaten araudi bat dago Espainian.

- 73,4ak du soilik atzerriko nazionalitatea, eta 26,6ak biak edo dagoeneko bederen espainiarra badu. %100a da atzerrian jaiotakoa.
- Hots, grafiko hauetan aintzat hartzen da atzerrian jaiotako guztien (etorkin guztien) eta dagoeneko Nazionalitatea lortu dutenen/ez dutenen arteko erlazioa.

Grafiko eta tauletan ikusten den bezalaxe, joerak dioenaren arabera, gero eta atzerritar gehiago ari da espainiar nazionalitatea eskuratzen (hots, barren tarte grisa gero eta txikiagoa da). Dena den, aipagarria da 2018an berriro ere behera egin duela espainiar nazionalitatea duten atzerritarren kopuruak: izan ere, azken urteotan jende asko heltzen ari da, eta oraindik ez dituzte nazionalitatea lortzeko bete beharreko baldintzak betetzen.

**Porcentaje de personas de origen extranjero en España y la CAE por territorio histórico, 2018**




**Población extranjera y nacida en el extranjero en España y Euskadi, 2018**




Ikusten den bezala, Espainiako populazio osoaren %13,7a da etorkina (atzerrian jaioa); ordea, soilik %10,1a da nazionalitate atzerritarra (atzerritarra) duena. EAEn, ordea, gure populazioaren %9,4a da atzerrian jaiotakoa, eta %6,9a atzerriko nazionalitatea (soilik) duena.

Ikus daitekeenez, alde bat dago bi zifren (barren) artean. Izan ere, esan bezala, espainiar nazionalitate paperak lortzeko prozesu bat abiarazi ohi dute etorkinek. Honetan, aipagarria da, herrialde ezberdinetatik datozenek erraztasun edo zailtasun handiagoak izango dituztela nazionalitatea lortzeko: horrekin, Latinoamerikar batek errazago lortuko du nazionalitatea Marokoar batek baino.

> Hots!
>
> Izan liteke bertan jaiotakoa (autoktonoa) baina atzerritarra izatea (Espainiar nazionalitaterik ez izatea). Izan ere, lege aldaketa bat medio, bertan jaiotzen diren atzerritarren seme-alabak atzerritarrak izango dira.

**Población autóctona y de origen extrangero en la CAE por franjas de edad (%), 2018**




Barra hauetan EAEko biztanleria aztertzen da, adinaren arabera. Ikusten den bezalaxe, EAEko atzerritarrak gazteagoak dira autoktonoak baino (hots, atzerritarren %62,6a da 16-44 urte bitartekoa, autoktonoen %30,3ak soilik du adin tarte hori).

Horrekin, lurralde antolamenduaren politikaren helburua, unitate geografiko ezberdinen arteko garapen orekatua bultzatzea izango litzateke, baliabideen kudeaketa sostengarria eginez eta hiritarren bizi-kalitatea bermatuz.

- Testuinguru honetan, *bizi-kalitatea* kontzeptuak indar handia hartzen du. Kontzeptu honen definizioa eztabaidagai izan daiteke; lehenesten den irizpidearen arabera bizi kalitatea era oso ezberdinean definitu baitaiteke. Aipagarria da, ekonomikoak ez diren gero eta irizpide gehiago hartzen direla aintzat: espazio berdeen kopurua, energia alternatiboen erabilera, babes-eremuak, birziklai-tasak, hiritar parte-hartzea, kohesio soziala …

- *Sostengarritasunak* ere indarra hartu du azken urteotan lurralde antolamenduaren eztabaidaren baitan. Honek, erreferentzia egiten dio lurraldearen baliabideen erabilera arrazionala egiteari, honakoak etorkizunean arriskuan egon daitezen saihestuaz. Honekin, maiz erabiltzen da *garapen sostengarria* kontzeptua, nahiz maiz era kontrajarrian ere erabiltzen den.

- Bizi kalitatea eta sostengarritasuna sustatzeaz gain, gero eta gehiago sustatzen dira *hiritarren partaidetza* eta instituzio ezberdinen arteko *koordinazioa*. Dena den, egia da honakoa mailz teoria mailan geratzen dela.

Hizpide dugun planifikazio honen baitan, garrantzitsua da epe ertaina et epe luzea aintzat hartu behar direla azpimarratzea. Hots, lurralde antolamenduaren inguruan hartzen diren erabakietan ezin da soilik epe motzeko helburu edo errealitatea aintzat hartu.

Honek ez du esan nahi historian zehar lurralde antolamendua aintzat hartu ez denik. Antzineko zibilizazioetan, dagoeneko, lurraldearen antolaketa egin behar zen ingurumen mehatxu zein aukerak

probestuaz. Adibidez, urarekin lotuta, uholdeen ondorioak saihestu behar ziren baina, era berean, uraren dohainak baliatzea ezinbestekoa zen.

Dena den, lurralde antolaketa, era sistematiko eta planifikatuan, XIX.mendetik aurrera ematen da. Halere, garapena IIMG-tik aurrera eman zen: lurralde asko suntsituta geratu ostean, hauen kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izatearen beharra azpimarratu zen.

**LURRALDE ANTOLAMENDUA EAEn:**

EAEko lurralde antolamendua ulertzeko faktore geografiko zein historikoak hartu behar dira kontutan.

- Faktore geografikoak: klima, topografia edota landaretza mota ezberdinek EAE zonalde ezberdinetan banatzen dute. Klima ozeaniarrari loturiko kostalde eta barrualdea, hauen arteko trantsizio eremu batekin.
- Faktore historikoak: erdi aroan sortu ziren herri-guneak edota kostaldeko industrializazioaren garapena aintzat izan behar dira.

XIX.mendean, dagoeneko, bereizketa hauek nahikoa nabarmenak izango dira. Horrela, Bizkaia eta Gipuzkoan populazio kontzentrazioak ematen hasen dira, kostaldetik gertu eta garapen ekonomiko nabarmen batekin. Aldiz, Araban bizimodu tradizionala nagusi izan zen XIX.mende amaiera arte.

Gaur egun, hirigune garrantzitsuenak hiriburuen inguruan kokatzen dira eta horien eraginpean daude. Ezberdintasun nabarmenena Arabar Errioxarena da, EAEn nagusitzen den eredutik aldendu eta Logroño edota Miranda de Ebrorekin harremantzen baita gehiago.

- ***Bizkaia:***

Bizkaian ezaugarri nagusiena Bilbo metropolitanoaren garrantzia da; hots, lurralde historiko honen populazioaren %76,5a kokatzen da bertan, EAEko populazio osoaren %41, hain zuzen ere. Eremu honetatik kanpo, Bizkaian oso gutxi dira 10.000 biztanle baino gehiago duten herriak: Durango, Zornotza, Gernika, Mungia, Ermua, Bermeo …

- ***Gipuzkoa:***

Gipuzkoaren egitura, Bizkaikoarekin alderatuz, deszentralizatuagoa da. Donostiak populazioaren %26a hartzen du; baina era berean, badaude maila ertaineko herriak barnealdeko eskualde ezberdinetan (10.000 biztanletik gorakoak, alegia): Eibar, Arrasate, Elgoibar, Oñati, Bergara, Beasain, Tolosa, Azpeitia, Zumarraga, Irun zein Hondarribia. Dena den, egia da azken urteotan Donostialdeak indarra hartu udena, eta nolabaiteko hiri zonaldea sortu dela Lapurdiko hiri eta herriekin.

- ***Araba:***

Arabako kasuan, nekazal eremua da nagusitzen dena. Gasteizen populazioaren hiru laurdena bizi da (%75) eta, gainontzean, soilik Laudiok gainditzen ditu 10.000 biztanleak. Hots, Gasteiz isolatutako hiri bezala agertzen zaigu.

Makrozefalia urbanoa

En geopolítica se le llama macrocefalia a la tendencia, en muchos países, a la concentración de los poderes económico y político, y la administración nacional en la ciudad capital generalmente. Es más frecuente en países donde su organización política y territorial es de un Estado unitario.

La macrocefalia es un fenómeno que se da en los países cuya red urbana está muy desequilibrada por el predominio de una gran ciudad que concentra a gran parte de la población urbana.

EAEn hiri ertainak ere baditugunez, geografia guztian nahikoa populazio egotea bermatzen da. Dena den, hiri zonaldeen indartzeak nekazal zonaldeen populazio galera eragin du (bereziki Araban antzematen dena). Halere, aipagarria da hirietatik gertu kokatzen diren herri batzuk handitu egin direla azken urteotan, hirietan lan egiten dutenei aukera hobeak eskaintzen baitizkio herri batek etxebizitza arloan (etxebizitza merkeagoa, hobea, inguru lasaia, bigarren etxebizitza … ).

EAEren kasuan, lurralde antolamendua eta hirigintzaren eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio, konstituzioa eta Autonomia Estatutuaren arabera. Gai honi dagokion lehen legea 1990 urtean sortu zen, eta garrantzia ematen die DOTei (Directrices de Ordenación del Territorio edo Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak).

- ***DOT:***

Gidalerro hauek dira EAEk, espazialki, hurrengo urteetan izango duen bilakaera zehazten dutenak. Hauen arabera zehazten dira hiriburuen, herri ertainen eta hauen inguruan antolatzen diren area funtzionalak; sostengarritasunaren arabera kudeatzen da lurraldea; barne zonalde funtzionalen arteko lotura bultzatzen da eta baita EAE kanpo lurraldeekin lotzea ere, azpiegitura ezberdinen bidez.

DOT hauen bidez etxebizitza, azpiegitura, mugikortasun politikak, eredu energetikoa, eremu naturalak edota lurzoruaren erabilera gauzatzeko planifikazio estrategikoa burutzen da. Hauetan ildo nagusiak zehazten dira, eta, gerora, arloen araberako plan edo plan lokalen bidezko garapena ematen da.

**GAUR EGUNGO ESTRATEGIA: EUSKAL HIRIA**

Gaur egun, EAEko lurralde antolamendu hau gaurkotzeko sostengarritasuna eta berrikuntza ardatz gisa hartu dira, hainbat planteamendu berri egin direlarik. Honakoen helburua, bereziki, lurralde desorekei aurre egitea da: oreka demografikoa eta geografikoa helburu. Honakoak dira probintzia bakoitzerako proposamenak:

- ***Bizkaia:***

Helburua da populazio hazkundea ematea hainbat herrietan: Balmaseda-Zalla, Mungia, Igorre, Orduña eta Durangon. Horretarako, azpiegitura eta garraioan hobekuntzak ematen ari dira: lehen Bilbotik Balmasedara 50 minutu behar ziren, gaur egun 25. Horrek, jende gehiago erakarri, sare gisako bat sortu eta oreka demografikoa ekarriko lukeenaren ustea dago.

Beste alde batetik, Bilbo metropolitanoaren berriztatzea ere helburu da hots, hiriaren nazioartekotzea eragitea (turismoa, kongresuen areagotzea … ). Gerora, nazioarteko ekintza horiek eskualde mailara eramatea legoke.

- ***Gipuzkoa:***

Gipuzkoako eredua orekatuagoa denez, dagoeneko badauden area edo eskualde funtzional horiek mantendu eta haien garapena bultzatzea da helburua. Dena den, Donostialdeak azken urteotan hartu duen indarra dela eta, beste herriak babestea aurreikusten da: Tolosa, Eibar, Beasain-Zumarraga, Azpeitia-Azkoitia eta Arrasate-Bergara.

- ***Araba:***

Gasteizko makrozefalia arintzea da helburua. Horretarako, ahalmen gehien duten herri eta eskualdeetan garapen ekintzak bultzatuaz, hauen potentzialak sustatuz: Lautada, Errioxar Araba edota Arabar Mendebaldea.

**Euskal Hiria:**

Aurreko lurralde antolamendua hirien nagusitasunean eta industrial eta nekazal zonaldeen arteko bereizketan oinarritzen zen, zonalde horietan funtzio eta hierarkiak argiak izaki. Gaur egun eta etorkizunera begira, ordea, hiri-eskualdeen aldeko apustua egiten da (ciudad región).

Hiri-eskualde hauetan eremu nagusi argiak difuminatu egiten dira, eta funtzio eta ekintza ezberdinak lurraldean zehar banatzen dira, gero eta zonalde handi eta anitzagoak hartuaz. Horrela, bada, Euskal Hiria kontzeptuak euskal hiri-eskualdeari (Ciudad Región Vasca) egiten dio erreferentzia.

Hiri-eskualdeak honako ezaugarri hauek ditu:

- Hiri zonaldearen garapena ematen da, eta lurraldea okupatzeko modu berriak hedatzen dira: nekazal eremuak hiri dinamiketan barneratzen dira, hiri zentroetan aldaketak (komunitate etnikoak, gentrifikazioa, turismoa) ematen dira, lehen periferikoak ziren gunean zentral bilakatzen dira (aisialdi eta merkatal guneak) …
- Garraio sistema berriak: kanpo loturei begira portu eta aireportuak, abiadura handiko trenak, metro eta tranbia zentroan, sistema ezberdinen arteko intermodalitatea eta konektibitatea …
- Balio erantsiko zerbitzu eta ekipamendu sistema hirietan, nazioarte mailan dauden edo enpresak erakartzeko zein lehiakorrak izan daitezkeenak eratzeko.

Proposamen honekin, *polizentrismoari* buruz hitz egiten da: honen arabera, EAE hirigune edo zentro ezberdinak eta ongi konektatutakoak dauden hiri-eskualdea litzateke. Hiru hiriburuak leudeke, eta gero, maila ertain eta txikiko hiriak; guztiek hiri-sare bat osatuko luketelarik, gune bakoitza sare eta garraio sistemen bidez komunikatuta.

Eredu polinuklearra:





Barne harreman horiez gain, ordea, kanpo-harremanak ere aipagarriak dira. Izan ere, EAEk kokapen estrategikoa duela aipatzen da: lotura eta sarrera planteatzen da bai Europara eta baita Espainiako ekialde zein mendebaldera ere.




Era beran, Euskal Hiria bere eremua gainditzen duen lurralde bezala ere planteatzen da, Iparraldearekin Euskal Euroregioa edo Euskal Euro Eskualdea sortzen baitu. Horrela, Baiona eta Donostiak 600.000 biztanleko eurohiria osatuko lukete.






Hortik abiatuta, planteamendu zabalagoak ere egiten dira. Hala nola, Euskal Hiria Plus, non EAE sistema erregional handiago baten ardatza izan daitekeen, jadanik harremana duen hainbat eremurekin, hain zuzen ere.







Azkenik, arku atrantiarrari buruz hitz egiten da, zeinetan 28 eskualdek elkarkidetza bultzatzen duten.

Eredu hauen aurkako ikuspuntuak ere badaude. Adibidez, deshazkundearen korrontean kokatzen direnentzat, eredu honek mugikortasuna bultzatu eta garapen tradizional baten aldeko apustua egiten du. Eztabaida honen baitan kokatzen dira, hala, azpiegitura handien inguruko eztabaidak: AHT, errepideak …

## ETXEBIZITZA EAEn

Etxebizitza eta Eusko Jaurlaritza

- Eusko Jaurlaritzaren jabetzak, etxebizitza publiko dira. Bi aukera:
  - Saldu eta babes ofizialeko etxebizitza bilakatu
  - Alokatu

- Babes ofizialeko etxeen kasuan, gehiengoak, prezioa tasatua du eta erosleak arau batzuk bete behar ditu.
- Alokairuaren kasuan Eusko Jaurlaritzak gauza bera egin dezake, Bizigune Programaren bidez. Hots, merkatu pribatuan alokairuan dauden etxebizitzak hartu eta prezio tasatuak ezarriko dizkie. Honekin, alokairuaren bitarteko bilakatzen da Eusko Jaurlaritza.
- Badago alokairuaren merkatua ahalduntzeko beste era bat: hutsik dauden etxeek zerga bikoitza ordaindu behar dute. Horrela, jendean dagoeneko ez du etxe hutsik izan nahi, eta alokairuan jartzen dute.
- Etxebizitzaren eskubidea eskubide subjektibotzat lortzen da. Hau da, etxebizitza bat behar duten guztiek etxebizitza izan behar dute, eta administrazio publikoa da hori bermatu behar duena. Honakoa merkatuaren politikatik at geratzen da, eta helburua beharra duen inor etxerik gabe ez geratzea litzateke.
- Baldintzak:
  - Babes ofizialeko alokairua: 9.000€ eta 25.000€ bitarteko diru sarrerak.
  - Babes ofizialeko salmenta: 9.000€ eta 39.000€ bitarteko diru sarrerak.

Laburbilduz, esan genezake Espainiako eta EAEko etxebizitza sistemak oso antzekoak direla; baina badaudela EAEn bereizgarri batzuk. Tartean, etxebizitza publiko eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago dagoela..

Alo merkatu librea eta VPO

**GRAFIKOEN JORRAKETA:**

ETXEBIZITZA KOPURUA EHN ETA ETXEBIZITZA KOPURUA BIZTANLEKO 2011

| Izen ofiziala | Etxebizitza kopurua 2011 | | Etxebizitza kop./biztanleko 2011 |
|---|---|---|---|
| | N | % | |
| **Euskal Herria / País Vasco / Pays Basque** | **1.506.431** | **100,0** | **0,48** |
| Araba / Álava | 157.943 | **10,5** | 0,49 |
| Gipuzkoa | 327.952 | **21,8** | 0,46 |
| Navarra / Nafarroa | 308.606 | **20,5** | 0,48 |
| Bizkaia | 534.192 | **35,5** | 0,46 |
| Labourd | 153.883 | **10,2** | 0,63 |
| Basse Navarre | 15.625 | **1,0** | 0,51 |
| Soule | 8.228 | **0,5** | 0,54 |

Taulari erreparatuta Lapurdin biztanleak baino etxebizitza gehiago daude; beraz, aipatzekoa da bigarren etxebizitzen fenomenoa. Honek tasa handitzea dakar, eta Lapurdin dugu bigarren etxebizitzen fenomenoa.

Beraz, populazioa eta etxebizitzen arteko harremanean eragiten duten faktoreetako bat bigarren etxebizitzen fenomenoa da.

Fenomeno honek herriari ekonomikoki asko eragiten dio hilabete jakin batzuetan soilik sartzen delako dirua. Gainera, udaletxeei ere eragiten die egoera hau ez delako eurentzat batere ona; hau da, zergak oso jende gutxik ordaintzen ditu, baina zerbitzuak jende guztiari eman beharra dizkiote. Adibidez, errenta per capita baxuenetarikoa duen herria Torrevieja da hotel oso gutxi daudelako, eta jendea apartamentuetara joaten delako. Beraz, oso jende gutxi bizi da Torreviejan eta herriak oso zerga gutxi jasotzen ditu.

ESPAINIAKO EXEBIZITZEN ERAIKUNTZA




Fuente: Colegio de Arquitectos de España. Elaboración propia.

Merkatu libreko etxebizitzak egotea ez da betidanik eman den kontua, Frankismo garaian etxebizitzen gehiengoa babes ofizialeko etxebizitzak ziren. Beraz, aipatu grafikoan fenomeno hau garbi ikusten dela.

Krisiak erabateko aldaketa suposatu zuen, hau da, ia-ia etxebizitzen eraikuntza desagertu egin zen.

1988tik 2008ra bitartean eginiko etxebizitzak desastre bat zian dira, hau da, garai honetan etxebizitza pila bat egin ziren. Beraz, garai honetan egin zuen gora merkatu libreak, eta honi deritzo 'burbuja inmobiliaria'.

Normalena etxebizitzen eraikuntzaren politikak ziklo ekonomikoarekin lotura izaten du, hau da, dirua dagoenean jendeak etxebizitzak erosiko ditu eta ez duenean ez. Baina ikus dezakegu aurreko krisiek ez dutela azken krisiak bezainbesteko eraginik izan; honen arrazoia azken krisiak etxebizitzen eraikuntza oinarri zuela zen.

EDIFICACION DE VIVIENDA EN LA CAE:




Babes ofizialeko etxebizitzek Franco garaian izugarrizko garrantzia izango dute, eta ondoren jaitsi egingo dira, baina ondoren ez da horrenbesteko igoera ezta jaitsiera emango. Gainera, Espainiarekin alderatuta babes ofizialeko etxeen kopurua altuagoa da

Beraz, aipa dezakegu EAEn etxebizitzen merkatua egonkortuago dago. Gainera, aipatu beharra dagi EAEn etxebizitzen eraikuntza beharrei lotuta egin dela, eta ez horrenbeste negozioari.

G1. Oferta de vivienda en venta (nueva y usada) y alquiler, % (2000-2012).




Fuente: Elaboración propia. Observatorio Vasco de Vivienda.

Aipatu 2005ean etxe berri gehiago genituen erabilitakoak baino. Hots, etxeak salgai jartzen ziren, eta jendeak erosi egiten zituen.

Udaletxeek erabateko negoziazio egiten dute enpresariei lurzorua oso garesti saldu, eta hauek behin erosita etxe hori oso garesti salduko dute. Nik etxe bat erosi ahal izateko bankuak behar ditut hauek hipoteka bat ahalbidetuko didatelako, eta garai honetan bankuek jende guztiari emango dizkiote maileguak.

Garai haietan aurrezki kutxa askok porrot egin zuten, eta hauen jabe politikariak zirenez askotan ustelkeria kasuak nabarmentzen ziren.

- *Aurrezki kutxak:* hauek publikoak ziren, eta hauen jabe zirenak politikariak ziren. Eman diren ustelkeria kasuak direla eta hauek porrot egin dute.
- *Bankuak:* hauek publikoak edota pribatuak izan daitezke. Egungo banku ia guztiak pribatuak dira.

Aipatu beharra dago Espainiaren kasuan erreskate bat egon zela, eta honek hainbat bankuren desagerpena galarazi zuen. Beraz, banku pribatuen erreskate publiko bat izan zen.

ERAIKITAKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA PUBLIKOAK, EUSKL HERRIAN, %, 2005 - 2012




Grafiko honen arabera merkatu librea ia-ia desagertu egiten da. Beraz, krisia baino lehen merkatu libreko etxebizitza asko egiten dira, baina krisiarekin etxeak egiteari utziko diote, eta krisia pairatuko duena merkatu librea izango da.

Hortaz, kontuan izan behar da ehunekoak direla, eta ez dela askoz ere etxebizitza gutxiago egin zirena.

Euskal legeak behartu egiten du etxebizitza berrietan babes ofizialeko etxebizitza kopuru jakin bat eraikitzea. Beraz, egun babes ofizialeko kopuru jakin bat dago Euskal Herrian eta honek eragin positiboak ditu.

ETXEBIZITZA PREZIOAK GASTEIZEN, 2006:

| | Precios medios |
|---|---|
| Vivienda Libre nueva | 3.911 euros/$m^2$ |
| Vivienda Libre usada | 3.795 euros/$m^2$ |
| Vivienda Protegida nueva venta/der superf. | 1.286 euros/$m^2$ |
| INDICADOR SINTETICO | 2.679 euros/$m^2$ |
| | |
| Vivienda Libre en alquiler | 885 euros/mes |
| Vivienda Protegida en alquiler [22] | 304 euros/mes |
| INDICADOR SINTETICO | 391 euros/mes |

Babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko aukera baduzu merkatu librekoa erosteko baino herena gutxiago inbertitu beharko duzu. (aurreko taulan ikus daitezke Gasteizko datuak).

Honez gain, erabilitako etxebizitzen prezioa osoa altua da etxebizitzen prezioarekin alderatuta. Beraz, beste era batera esanda momentu honetan berdin zion etxebizitza berri bat edo erabilitako etxebizitza

bat erostea. Logikoa litzateke hamar urte pasa eta gero etxe batek erosi duzunean baina merkeagoa izatea.

MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZAREN PREZIO IGOERA, 2002-2005, por CCAA:




*Fuente: Ministerio de Vivienda.*

Etxebizitzaren merkatuarekin sekulako negozioak egin izan dituzte bai Valentzian baita Aragoin ere. EAEri erreparatuta, hauek ez zuten horrenbesteko arazorik izan. (aurretik aipatuta dago azkeneko hau)

ETXE BERRIEN PREZIOAREN BILAKAERA EAEn (merkatu librea eta babes ofiziala) 2001-2018

| | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B. Ofiziala | 61.000 | 67.000 | 73.000 | 83.000 | 95.000 | 100.500 | 104.200 | 108.100 | 115.300 | 110.200 | 112.000 | 114.500 | 117.700 | 127.200 | 129.800 | 130.400 | 132.700 | 135.100 |
| Merk. Librea | 195.000 | 204.000 | 218.000 | 254.000 | 286.000 | 311.900 | 349.300 | 337.200 | 329.300 | 318.100 | 308.300 | 302.200 | 283.800 | 266.000 | 259.800 | 253.500 | 258.700 | 270.400 |
| Tartea | 134.000 | 137.000 | 145.000 | 171.000 | 191.000 | 211.400 | 245.100 | 229.100 | 214.000 | 207.900 | 196.300 | 187.700 | 166.100 | 138.800 | 130.000 | 123.100 | 126.000 | 135.300 |




Etxe berriko prezioaren bilakaera ikus daiteke grafiko honetan, non ikus dezakegun babes ofizialeko etxebizitzetan ez dela krisiaren eragina nabarmendu. Merkatu libreko etxebizitzen prezioak kris garaian goruntz egin zuen, eta egun ere ikus daiteke prezio honek ere gora egiten duela. Igoera hauek diru sarreren araberakoak dira, eta aipatu beharra dago denok ezin ditugula etxebizitza bat izaterako garaian aukera berak (diruaren aldetik esaterako) izango.

MARKATU LIBREKO ETXE BERRIEN PREZIOA (m²-ko) EAEN ETA LURRALDE HISTORIKOETAN, 2018:




Datuak, oro har, nahikoa antzekoak dira Araban izan ezik. Izan ere, Gasteizen etxeak nahikoa merkeagoak dira: babes ofizialeko etxe asko eraiki baitziren. Arabaren datuek zerikusia dute orografiarekin: Bizkaia eta Gipuzkoak ez du halako orografiarik, eta hiriburuek hiri eta herri asko dituzte inguruan.

ETXEBIZITZA BEHARRAK DITUZTEN 18 – 4 TARTEKO PERTSONAK EAEn EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERA, 2017:

| | N | % |
|---|---|---|
| Guztira | 84.082 | 100,0 |
| Diru Sarrera nahikorekin | 21.014 | 25,0 |
| Diru Sarrera ez nahikorekin | 41.086 | 48,9 |
| Diru sarrerarik gabe | 21.982 | 26,1 |

Laurdena diru sarrera nahikorekin, erdia ia diru sarrerarik gabe eta azken laurdena sarrerarik gabe. Gazteen erdiak arazoak izaten ditu etxebizitzak eskuratzeko.

ETXEBIZITZA BEHARRAK DITUZTEN 18 – 44 TARTEKO PERTSONAK EAEn IKASKETAK ETA EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERA, 2017:




Beraz, hau ikusita aipatu beharra dago ikasketek asko eragiten dute egoera ekonomikoan, eta honek etxebizitza bat lortzearekin lotura zuzena du.

ALOKATUTAKO ETXEBIZITZEN PREZIOAREN BILAKAERA, 1994 – 2018:




Interesgarria da ikustea alokairua krisi garaian baino prezio altuagoan dago. Honen arrazoia eskaria eskaintza baino altuagoa denarena da. EAEn arazo izaten hasi den arren, Madrilen eta Bartzelonan arazoak izaten ari dira. Beraz, aipatu alokairuaren kontua oso NAHASITA dagoela.

FAMILIEN ESFORTZUA ALOKAIRUA ORDAINDU AHAL IZATEKO ESPAINIAN, 2019:




Leku gehienetan alokairuen prezioak gora egin duen arren, badira prezioek behera egin duten lekuak ere. Aipatu beharra dago ospitaleko soldatak diru nahikorik ematen ez zienez leku batzutan bertan lo egiten geratu beharra izaten zuten.

ETXEBIZITZEN IZAERA ERKIDEGOKA, 2001:



ETXEGABEEN BILAKAERA 2007 - 2017




Krisi garaian etxegabetzeen kopurua handitu egiten da Estatu mailan.

ETXEGABETZEAK ERKIDEGOKA, 2007-2013:




Hemen datuak falta zaizkigu Katalunian eta Andaluzian jende gehiago bizi delako, eta honek beti erakutsiko digulako bi erkidego hauek direla datu kopuru horiek ikusita.

Etxegabetze gehien izan dituztenak klase baxukoak izan diren arren, gehienbat etorkinak dira gehien sufritu dutenak.

Euskadin bada RGIa, zienak etxegabetze gutxiago izatea ekarri duen, eta familia horiek hala egoera hobean daude. Kasu askotan merkeagoa ateratzen da alokairua, eta askok bankuekin negoziatu dute, eta honek jendeak etxebizitza izateko aukera ahalbidetu du.

ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO ARAZOAK:

| | 1200 |
|---|---|
| No | 83 |
| Sí, tengo una orden judicial, pero sigo residiendo en mi domicilio habitual. | 5,1 |
| Si, estaba de alquiler y he tenido que abandonar mi domicilio habitual | 1,1 |
| Sí, tenía una vivienda en propiedad y he tenido que abandonar mi domicilio habitual. | 8,4 |
| Ns/nc | 2,4 |
| | 100 |

Datu hauek Ekuadorreko jendearenak dira, eta aipatu beharra dago hasiera batean oso ondo bizi direla, eta beren bizitzak erabat eraikita dituztela. Baina behin krisia sartuta hainbat arazo izan dira. Hau gertatu da etxebizitzak momenturik txarrenean erosi dituztelako, eta sekulako prezioak ordaindu dituzte etxe horiengatik.

Espainiako bankuek Ekuadorreko bankuei honakoa egin zieten; hasiera batean maileguak ematen zituzten, baina nik momentu batean dirurik ez badut ez dut nahikoa izango etxebizitza bueltatzearekin. Frantzian hau egin daitekeen arren, Espainian ezin da hori egin eta zuk zorra betirako duzu. Beraz, Ekuadorreko jendeak zor hori zuen, eta ordaindu ezin zuela eta Ekuadorrera alde egin zuten, baina Espainiako bankuek Ekuadorreko bankuei saldu zizkieten hipotekak eta azkenean dirua izatea lortu zuten.

# 7. gaia:

# EKONOMIA ETA LAN MERKATUA

## Euskal Herriko eta EAEko ekonomia eta lan merkatua

EUSKAL HERRIKO BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA. 2000 - 2015




2008ra arte hazkunde ekonomikoa izan zen, eta ondorengo urteetan ez zuen gora egin. Hau krisi ekonomikoaren eraginez izan zen. Baina 2014tik aurrera ekonomiak gorantz egin du. Krisia oso gogorra izan zen, baina mugak izan zituen; krisian gehiengo bat lanean zegoen, eta lanean jarraitu zuen.

EUSKAL HERRIKO ERRENTA PER CAPITAREN BILAKAERA. 2000 - 2016




BPG handiena duten lurraldeek ez dute zertan aberatsenak izan, aberastasuna neurtzeko errenta per capita hartuko da kontuan. Beraz, errenta per capitak ez digu banaketarik azalduko bataz bestekoa soilik adieraziko digu. Hortaz, ezin dugu jakin barne ezberdintasun handiak dauden edo ez. Hargatik, ezberdintasuna neurtzeko Gini indizea izango genuke, baina honek ez du aberastasuna eta pobrezia neurtuko; Gini indizeak mugak ere baditu.

EUSKAL HERRIKO BPGa LURRALDEAREN ARABERA. 2015

Beraz, aurreko grafikoari erreparatuta konturatuko gara Bizkaia dela BPG handiena duena. EHko datuen inguruan ari garenean Gaindegiaz ari gara, hau baita halako datuak azaltzen dituen datuak.

| | Milla milloi | % |
|---|---|---|
| Euskal Herria | **96.175.953** | 100,0 |
| Araba | 11.309.638 | 11,8 |
| Gipuzkoa | 22.916.697 | 23,8 |
| Nafarroa | 18.485.000 | 19,2 |
| Bizkaia | 34.990.148 | 36,4 |
| Iparraldea | 8.474.470 | 8,8 |




BARNE PRODUKTU GORDINA EUROPAN ERREGIOEN ARABERA. 2018




- URDIN ILUNA: Europako BPGaren bataz bestetik gora kokatzen diren lurraldeak
- URDIN ARGIA:
- HORIA: EuropakobPGaren bataz bestetik behera kokatzen diren lurraldeak

Beraz, aurreko irudi honetan ikus dezakegu Europa sozialista (hau da, Europa mendebaldea) garapen gutxiagorekin ageri dela, eta bertan, hegoaldeko eta iparraldeko lurraldeen arteko bereizketa bat ageri da. Espainia iparraldea Europarekin doa, eta hegoaldea, ez. Gu, maiz, Europako bataz bestetik gora kokatzen gara.

ESPAINIAKO BPGaren BILAKAERA. 2000 - 2017




Krisi ekonomikoarekin batera behera egiten du BPGak, eta ikus dezakegu nola bi krisi ekonomiko (2009an eta 2012an) izan direla. Grafiko honetan ageri den jaitsiera ez da normala, eta honen ondorioa da eraikuntzaren krisia, hau da, eraikuntzan lanean diharduten hainbat enpresa itxiko dira, eta eraikuntza lehen enplegu iturri izatetik desagertzera iritsiko da.

2010 inguruan krisi ekonomikotik irteten ari ginela zioten arren, 2012an beste krisi bat izan zen, zeinak bankarekin eta 'Las Politicas de Ajuste Presupuestario'rekin lotura izan zuen. Honek, bereziki gaizki zeuden lurraldeetan krisiaren areagotzea suposatu zuen. Iparraldeko herrialde batzuk erabakitzen dute krisiari aurre egingo zaiola gastu publikoaren murrizketen bidez.

Era berean Euskadin lehen krisiaren eragina ez zen nabarmendu bigarrenean etorri zen beherakada. Beraz, bigarrenean eragingo da askoz gehiago krisiaren eragina.

ADMINISTRAZIOAREN ZOR PUBLIKOEN BILAKAERA ESPAINIAN. 2000 - 2016



Kontuan izan behar da datu hauek Espainiakoak direla, eta EAEn ez dela horrenbesterainoko zorra egon. Kasu hauetan hainbat udaletxeri beren dirua interbenitu diete, hau da, Madriletik kontrolatu izan dituzte hauen kontuak.

ADMINISTRAZIO GUZTIEN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA. 2000 - 2016

Kontuan izan banku erreskate bat izan zela, eta aurrezki kutxek arazoak izan zituztela. Hemen azaltzen zaigu gastu publikoak BPGari zein eragin egiten dion.

*Datu hauek ikusita ezin dugu esan Espainia eta Euskadi neoliberalak direnik. (Soziologoak garen aldetik)

**GASTO PÚBLICO TOTAL**

**Excluidas ayudas financieras**

| | Millones € | Ayuda reconversión bancaria | % PIB |
|---|---|---|---|
| 2000 | 253.125 | --- | 39,17 |
| 2007 | 421.813 | --- | 39,03 |
| 2008 | 459.389 | --- | 41,16 |
| 2009 | 493.797 | 205 | 45,76 |
| 2010 | 492.657 | 545 | 45,58 |
| 2011 | 485.150 | 5.442 | 45,39 |
| 2012 | 460.593 | 39.584 | 44,30 |
| 2013 | 462.178 | 5.148 | 45,60 |
| 2014 | 462.961 | 2.463 | 44,61 |
| 2015 | 471.472 | 1.268 | 43,65 |
| 2016 | 469.167 | 2.866 | 41,96 |

**Fuente:** IGAE / IVIE

OSASUNEAN ETA HEKUNTZAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA. 2009 - 2016

**GASTO PÚBLICO EN SALUD, DE 2009 A 2016**

| | 07. Salud | |
|---|---|---|
| AÑOS | Mil € | % |
| 2008 | 67.292 | 6,0 |
| 2009 | 72.939 | 6,8 |
| 2010 | 71.080 | 6,6 |
| 2011 | 69.240 | 6,5 |
| 2012 | 64.685 | 6,2 |
| 2013 | 63.307 | 6,2 |
| 2014 | 63.492 | 6,1 |
| 2015 | 66.483 | 6,2 |
| 2016 | 67.598 | 6,0 |

**Fuente:** IGAE / IVIE

**GASTO PÚBLICO EN EDUCACIÓN, DE 2009 A 2016**

| | 09. Educación | |
|---|---|---|
| AÑOS | Mill € | % |
| 2009 | 49.692 | 4,6 |
| 2010 | 48.492 | 4,5 |
| 2011 | 47.137 | 4,4 |
| 2012 | 43.307 | 4,2 |
| 2013 | 42.081 | 4,1 |
| 2014 | 42.520 | 4,1 |
| 2015 | 44.360 | 4,1 |
| 2016 | 44.914 | 4,0 |

**Fuente:** IGAE / IVIE

Ez da osasun eta hezkuntza sistema publikoa suntsitu oraingoz, baina haustura nabarmenak izan ziren.

EUROPAKO ERRENTA PER CAPITAREN BILAKAERA EHn eta EUROPAR BATASUNEAN. 2000 - 2015

| | 2000 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKAL HERRIA | 22.900 | 28.700 | 31.300 | 33.100 | 32.900 | 30.600 | 30.700 | 30.600 | 30.700 | 30.400 | 31.600 | 33.200 |
| EB-28 | 19.800 | 23.400 | 24.700 | 26.000 | 26.100 | 24.500 | 25.500 | 26.100 | 26.600 | 26.700 | 27.600 | 28.900 |




ERRENTA PER CAPITA ESPAINIAN. 2017

Gure ekonomia lotuago dago Europara, eta honek Euskal Herriak krisia hobe aguantatzea ekarri du

| Comunidad Autónoma | 2017 (1 º E) | | |
|---|---|---|---|
| | Valor | Índice España = 100 | Tasa de Variación Interanual |
| MADRID, COMUNIDAD DE | 33.809 | 135,2% | 3,0% |
| PAÍS VASCO | 33.088 | 132,4% | 4,1% |
| NAVARRA, COMUNIDAD FORAL DE | 30.914 | 123,7% | 3,0% |
| CATALUÑA | 29.936 | 119,7% | 3,9% |
| ARAGÓN | 27.403 | 109,6% | 5,0% |
| RIOJA, LA | 26.044 | 104,2% | 2,9% |
| BALEARS, ILLES | 25.772 | 103,1% | 2,8% |
| **Total Nacional** | **24.999** | **100,0%** | **3,8%** |
| CASTILLA Y LEÓN | 23.555 | 94,2% | 3,7% |
| CANTABRIA | 22.513 | 90,1% | 4,4% |
| GALICIA | 22.497 | 90,0% | 4,4% |
| COMUNITAT VALENCIANA | 22.055 | 88,2% | 3,9% |
| ASTURIAS, PRINCIPADO DE | 22.046 | 88,2% | 5,7% |
| MURCIA, REGIÓN DE | 20.585 | 82,3% | 3,6% |
| CANARIAS | 20.425 | 81,7% | 3,0% |
| CASTILLA - LA MANCHA | 19.681 | 78,7% | 4,4% |
| CEUTA | 19.524 | 78,1% | 1,6% |
| ANDALUCÍA | 18.470 | 73,9% | 3,8% |
| MELILLA | 17.945 | 71,8% | 2,0% |
| EXTREMADURA | 17.262 | 69,1% | 4,3% |

## 8.gaia:

# POBREZIA ETA GIZARTE EZBERDINTASUNAK

**POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA:**

Pobrea bazara ez zara beti gizarte bazterketa egoeran egongo. Beraz, posiblea da pobrea den zein pobrea ez den pertsona bat gizarte bazterketa egoera egon daitekeena. Adibidez, duela 50 urte pobre asko zeuden Andaluzian, baina ez zegoen gizarte bazterketarik. Aitzitik, ezintasun bat duen pertsona bat agian ez da pobrea izango, baina gizarte bazterketa arazoak izan ditzake.

- ***Pobrezia:*** gabezia ekonomikoarekin lotuta dago

> *'Pobrezia, pobretasuna edo txirotasuna* oinarrizko beharrak *asetzeko behar diren baliabideak ez edukitzea eta ezin eskuratzea da, zentzu hertsi batean. Oinarrizko beharrez gaindi, pobrezia* bizi-kalitatearekin *ere loturik dago; hain zuzen,* hezkuntza, *giza-harremanak, ingurumenaren kalitatea eta askatasun politiko eta espiritualak ere pobreziari eragiten dioten faktoreak dira. Beraz, zentzu zabalago batean, pobrezia* giza garapenerako *beharrezko diren baliabideak ez izatea da. Pobrezia pertsona, talde edo herri batek* gizarte *baten baitan pairatzen duen egoera izan daiteke eta* desberdintasun ekonomiko *eta sozialaren ondorioa da.'*

- ***Gizarte bazterketa****:* kohesiotik kanpo legokeena litzateke.

| Pobreza | Exclusión social |
|---|---|
| • Estática | • Dinámica |
| • Dimensión individual | • Dimensión estructural |
| • Individuos | • Colectivos sociales |
| • Sociedad industrial | • Sociedad postindustrial |
| • Unidimensional | • Multidimensional |
| • Carencia económica | • Suma de diferentes carencias |

Adituek gero eta gehiago baliatzen dute gizarte bazterketa kontzeptua, pobrezia beharrean. Hots, nolabait esatearren, lehen (garai batean) baliatzen zen kontzeptua dugu pobreziarena.



**GIZARTE BAZTERKETAREN HIRU DIMENTSIOAK:**

1. ***Dimentsio ekonomikoa:***
   - Lan merkatuan parte hartzea. Hots, guk lan merkatuan era egoki batean parte hartzen badugu aukera gutxiago gizarte bazterketa egoera bizitzeko
   - Kontsumoan parte hartzea. Ongizate bat izateko denok kontsumitu behar dugu, eta gero eta gehiago pobrezia neurtzeko kontsumoari loturiko aldagaiak hartzen dira.

   Gehiengoak gure diru sarrera enpleguaren bidez lortzen dugu, baina badago jendea erreten bidez bere sarrerak lortzen dituena.

2. ***Dimentsio pilitikoa:***
   - Parte hartze politikoa, non bozkatzeko eskubidea izatea edo ez izatea azaltzen den. Hortaz, bozkatzeko eskubidea oso garrantzitsua da, horrela gizarte baten parte bihurtzen zarelako. Aipatu lehen aldiz ezintasun mentalak zituzten pertsonek azken hauteskundeetan bozkatu dutela.
   - Gizarte Zerbitzuak jaso ahal izateko eskubidea, hala nola, egun gizarte eskubiderik ez dutenak erroldatuta ez daudenak eta epe jakin batean erroldatuta ez daudenak dira.

3. ***Harremanen dimentsioa***:
   Dimentsio honi maiz garrantzia gutxi ematen zaion arren, oso garrantzitsua da.
   - Harremanik eza eta gizarte isolamendua
   - Harreman negatiboak edo gatazka soziala

## Pobrezia, gizarte eta zaurgarritasun soziala.

## Espainia eta Euskal Herriko datuak.

POBREZIAREN BILAKAERA ESPAINIAN 2009 – 2017




Grafikoari erreparatuta ohartuko gara behin krisi ekonomikoa pasata 2014tik aurrera igoko da pobrezia. Honen arrazoietako bat langabeziaren amaiera izan liteke.

Bestalde, aipatu krisiaren egoerarik larriena ez dela bankuek krak egiten duten momentuan emango ondorengo urteetan (2014 eta 2017 bitartean hain zuzen ere)

Euskadin krisiaren lehen inpaktua (etxebizitzaren krisia 2008an) ez da asko nabarituko, baina bigarrena 2012an langabeziarena gehiago nabarituko da.

AUTONOMIA ERKIDEGOK KONTUAN IZANDA ESPAINIAKO POBREZIA 2017




Euskal Herriko pobreziaren datuak kontuan izanda ohartuko gara Euskal Herriko datuak datu totalaren azpitik daudela.

KRISIAREN (LEHEN) INPAKTUAK POBREZIAREN GAINEAN ESPAINIAN



Kirisiaren lehenengo inpaktua ez da oso gogorra izango, ondo zeudenak okerrago egoten hasiko direla ikusiko dugu bi grafiko hauetan.

Beraz, krisia baino lehen formakuntzarik gabeko langile askok soldata oso onak zituzten eraikuntza zela eta. Adibidez, eraikuntzan lan egiten zuen edonork hilean 3.000€ irabaz zitzakeen. Baina guzti hauek langabeziara joango diren arren, langabezia prestazioa jasoko dute, baina langabezia prestazioa agortzen zaien momentuan arazoak etorriko dira diru laguntzak eskatu behar dituztelako, eta diru laguntza hauek eskastu egin direlako.

Zaharrak bagara aukera asko ditugu ekonomikoki ondo egoteko. Hau da, pentsionista askok pentsio oso altuak dituzte, eta horrekin ez dira batere gaizki bizi.

POBREZIA LARRIAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN 1986 – 2016




*Fuente: Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales (EPDS)*

Grafikoan ikus daitekeen bezala aipatu pobrezia Euskadin handitu egiten dela 2012tik aurrera.

Aipatu Euskadiko datuak beste erkidegoekin alderatzen baditugu Euskadiko pobrezia tasa gainerako erkidegoena baian askoz ere txikiagoa dela. Honetan diru laguntzek, prestazio sozialek... eragina dute.

Euskadin pobreziaren aurkako politikak (RGIa esaterako) ez baleude Euskadi erkidegoen erdian kokatuko litzateke pobrezia tasari dagokionez.

- *RGI (Renta de Garantia de Ingresos):* pobrezia egoeran daudenentazako EAEn existitzen den diru laguntza. Lanbide da errenta hau emate duena. Honetarako baldintzak hauek dira:
  - Baldintzarik garrantzitsuena diru sarrerarik ez izatea da
  - 23 urte baina gehiago izatea salbuespenak salbuespen. Hots, adingabeko baten menpe bazaude, indarkeria jasaten baduzu... 18 urterekin jaso ditzakezu.
  - EAEn azken hiru urteetan erroldatuta egon beharra duzu.
  - Bizikidetza unitatea eskatu baina urtebete lehenago osatuta egon behar da. Honen arrazoia emantzipazio errenta gisara ez erabiltzea litzateke.

- RGIaren zenbatekoa:

¿Cuánto cobraré si tengo derecho a la RGI?

La RGI es un complemento a los ingresos de cada familia. El importe de la prestación dependerá de sus ingresos mensuales, que se descontarán de las cuantías máximas detalladas en la tabla según el número de personas que forman la unidad de convivencia.

**Cuando no tengan ningún tipo de ingreso**: se reconocerá la cuantía máxima mensual establecida en función del número de miembros de la unidad de convivencia.

**Cuando tengan algún tipo de ingreso (por trabajo, pensiones, rentas, alquileres, indemnizaciones, etc.)**: su cuantía se calculará descontando todos sus ingresos a la cuantía máxima que le pudiera corresponder en función del número de miembros de su unidad de convivencia. A los ingresos por trabajo se les aplican los estímulos al empleo, que permite descontar parte de esos ingresos para beneficiar a la persona que trabaja.

## Cuantías máximas mensuales de la RGI para el 2019

| Nº PERSONAS UNIDAD CONVIVENCIAL | GENERAL - MÁXIMO €/MES | PENSIONISTAS - MÁXIMO €/MES |
|---|---|---|
| 1 | 667,05€ | 765,34€ |
| 2 | 856,55€ | 956,67 € |
| 3 o más | 947,51€ | 1.033,20€ |

En el caso de las **unidades de convivencia monoparentales** (constituidas exclusivamente por la madre o el padre con uno o varios hijos o hijas menores de edad a su cargo), la prestación se verá complementada con **48,51€** mensuales del **Subsidio de Unidades Monoparentales (SUM)**.

## Unidades de convivencia monoparentales

| Nº PERSONAS UNIDAD CONVIVENCIAL | MONOPARENTAL - MÁXIMO €/MES |
|---|---|
| 2 | 905,06€ |
| 3 o más | 996,02€ |

Los perceptores de RGI pueden cobrar además la **prestación complementaria de vivienda (PCV)** para los gastos de alquiler de la vivienda, que tiene una cuantía máxima de **250€.**

## Unidades de convivencia monoparentales

**Nº personas Unidad Convivencial:** 2
**Monoparental - Máximo €/Mes:** 905,06€

**Nº personas Unidad Convivencial:** 3 o más
**Monoparental - Máximo €/Mes:** 996,02€

Los perceptores de RGI pueden cobrar además la **prestación complementaria de vivienda (PCV)** para los gastos de alquiler de la vivienda, que tiene una cuantía máxima de **250€.**

ONGIZATERAEN EBOLUZIOA KATEGORIA EZBERDINETAN EUSKAL HERRIAN (TALDEKATUTA) 1986 – 2016




2008tik 2014ra bitartean pobrezia handitzeaz gain ondo daudenen kopuruak ere gora egingo du. Hots, polarizatu egiten da. Beraz, ikus dezakegu nola batzuk ez zuten krisirik pairatu.

Beraz, 2016an Euskadin bizi direnen hiru laurdenak ondo edo oso ondo bizi dira.

POBREZIAREN EBOLUZIOA ETA ONGIZATE EZAREN BILAKAERA FAMILIAKO PERTSONA PRINTZIPALAREN SEXUAREN ARABERA, 2008 - 2014




Hemen emakumeak okerrago daude:

- Lan prekarizazioa dela eta, hau da, soldata arrakala dagoelako.
- Lan munduan amatasuna dela eta bahimen gehiago eskatu beharra dituztelako

- Askotan etxean zaintza lanak egiten dituzten gehienak emakumeak direlako, eta etxeko zaintza lanak soldatarik gabekoak direlako
- Familia monomarentlak (hau da, guraso bakarreko familiak) dira azken hamar urteetan nagusi, eta hauek dira pobrezia gehien pairatzen dutenak. Beraz, soldata bakarra baduzu eta bi seme-alaba pobrezian egoteko aukera handiagoa duzu.

ADINARI DAGOKIONEZ, POBREZIAREN EBOLUZIA EUSKAL HERRIAN 1986 – 2016




RGIari esker adinekoen artean ia ez dago pobreziarik. Hau da, pobre gehienek nahiz eta alargun pentsioa jaso pobreziaren muga jaisten dute.

EUSKAL HERRIKO POBREZIA ESKUALDEEN ARABERA 2016




Nagusiki magrebdarrak eta subsahariarrak badaude pobrezia tasa altuagoa izango da.

Debagoienan Mondagon Kooperatiba dela eta pobrezia tasa oso baxua da.

PRIBAZIO TASA EAEn ETA GAINERAKO HERRIALDEETAN




*Fuente: Eurostat*

Pobreziari begira Iparraldean kokatzen gara.

GINI INDIZEAREN EBOLUZIOA EUSKAL HERRIAN 1996 – 2016




*Fuente: EPDS*

Krisiaren bigarren inpaktoak Euskadin oso gogor jo zuen. Krisiak egon ziren, baina Gini indizeak beheraka zihoan, hau da, gero eta parekatuagoa zeuden. Baina krisiaren eraginez ezberdintasunak handitu egin dira.

(Gini Indizea geoz eta altuaga bertako biztanleen ezberdintasuna handiagoa, eta indizea gero eta txikiagoa berdintasun handiagoa). Kontuan izan, Gini Indizeak ezberdintausna neurtzen duela, eta ez aberastasuna. Beraz, klase ertaina non kokatzen den azalduko digu Gini Indizeak.

EUROPAR BATASUNEKO ETA EAEko GINI INDIZEA




Ongizate Estatua dagoen lekuetan Gini Indizeak asko jaisten dira bertako egoera gainerako lekuena baina hobea delako. Hego Amerikan eta Brasilen kasu aberats ikaragarriak eta pobre ikaragarriak izango genituzke.

**AZTERKETA**K 4 PUNTU BALIO DITU:

- 10 -15 lerrotan erantzuteko 4 galdera izango dira.
- Zer dira DOT (Directorios del Orden del Teorritorio)? Hau aurreko urtean galdetu zuen
- Galdera frikirenbat sartuko du klasean aipatutakoa
- Azterketako galdera bat grafiko bat izango da